

uztarria

AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

lone eta Ane,
bi azpeitiar
Zumaian
arraunean (18-21)



Hilabetekaria • 2002ko ekaina • IV. urtea • 30. zenbakia • www.uztarria.com



ALDAKETAK LOIOLAN



Besteak beste, Katalangoa eta Loiolatxo bota egin nahi dira (24-28)



Jostailuak - Paperdenda - Tel. 15 05 30 - Sanjuandei auzue



udaberri honetan eskuratu zure bezero txartela

%10eko deskontua
ATERA ETEKINA ZURE EROSKETEI!

- agirre oparidenda - erdikale, 1
- aintzin - santiago, 8
- astigarraga - erdikale, 21
- disdira - elizkale, 1
- egaña - santiago, 16
- jone eta maikar - enparan
- jostaldi - erdikale, 15
- kimetz - santiago, 6
- martina isasti - erdikale, 10
- oinkari - erdikalea, 5
- romaes - elizkale, 11
- trapos decoración - santiago, 5

Azpeitiko alde-zaharreko Merkatarien Elkartea

- * Agirre Oparidenda
- * Aintzin
- * Astigarraga
- * Disdira
- * Egaña
- * Jone eta Maikar
- * Jostaldi
- * Kimetz
- * Martina Isasti
- * Oinkari
- * Romaes
- * Trapos Decoración

Ekainaren 11tik 15era bitartean izango da Gazte Astea, Azpeitian Gazteok Zer?! taldeak antolatuta, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte

GAZTE GUNEA ALDARRIKATUKO DA GAZTE ASTEAN

Hiru emakume
Santiagoerra
errones
(12-13)

Udaletxean
jada badago
EHNA
ateratzeko
aukera (34-35)



Batasuna
kultura
herritarra
bultzatzaren
alde (36)



Karmen
Uzkudun,
yoga
irakaslea (46)

uztarria



SEIGARREN ALDIA. Seigarren aldiz antolatu du aurten Azpeitian Gazteok Zer?! taldeak Gazte Astea. Eta hasieratik aldarrikapen bat eduki du: Gazte gunea. Horren bidean egin izan ditu ekitaldiak, egin izan du txostena, baina oraindik ez du lortu Udalak bere eskaera aintzat hartzerik. Argazkian, Gazte Aste bateko irudi bat.

Iban Arregi

Azpeitian Gazteok Zer?! Taldeak antolatuta, VI. Gazte Astea egingo da ekainaren 11tik 15-era. Larunbatean, 15ean bertan, Gazte Eguna egingo dute, asteari bukaera emateko. Aurreko urteetan bezala, "gazte gunea baten beharra" aldarrikatuko dute herriko hainbat gaztek. Azpeitian Gazteok Zer-eko kideek diotenez, "gizartean gazteen partehartzea bultzatu nahi dugu, eta, horretarako, benetan garrantzitsua da gazteek biltzeko lokalen bat edukitzea". Lokala "bitarteko" bat da gazteentzat, beraz, bestelako helburuak lortzeko. "Gazteok, arazoaren aurrean, antolatu egin behar dugu, eta gazteok geure bizia aurrera eramateko baliabideak antolatzeko ahalmena behar dugu. Izan ere, gaurko gizartearen eraginez, gazte mugimenduak ere behera egin du".

2000ko maiatzean gazte gunea baten aldeko proposamena egin zien AGZek Azpeitiko Udalarari eta herritarrei (ikusitako proposamena bosgarren orrialdean). Pasa den apirilean batzarra egin zuten herriko gazteek, AGZek deituta —60 lagun inguru bildu ziren—, eta lana bi norabidetan egitea erabaki zuten, bietan lokalaren aldeko proposa- ►►

» mena oinarri hartuta. Batetik, sektore ezberdinak “ukitu” nahi dituzte eta atxikimenduak bildu, “gazte lokalaren gaia ez delako gure arazoa bakarrik”. Bestetik, “Azpeitiko Udalak izandako jarrrera salatu” nahi dutela diote gazteek, “elkarrizketari uko egin diolako” —bide horretatik, herriko zazpi gazteren kontra abiatzear den epaiketa ere “salatu” nahi dute Gazte Egunean—. Aldarrikapen horiek denak bilduko ditu Gazte Astea.

Gazte lokalaren gaiaren inguruan “tentsio handia” sortu dela diote AGZeko kideek, baina haiek “udalarekin hitz egiteko prest” daudela, “benetan arazori eusten bazaio”. Bi aldean inplikazioa “beharrezkoa” dela diote. “Oraingoz, baina, elkarrizketarik ez dago, udalak hitz egin nahi ez duelako”.

Uztarriak gaiaren inguruan galdetu dio Azpeitiko Udalari, baina hark ez dio erantzun. Dena dela, eta aurtengo Txikiteo Elegante Egunean mamuz jantzitako gazteen eta alkatearen koadrilaren artean izandako lisarren ondoren, hauxe esan zuten EAJ-EA koalizioko zinegotziek: “Ez dugu inolako presiorik onartuko, eta irtenbiderako elkarrizketaren bidea defenditzen dugu”.

EKITALDI UGARI. Gazte Astea ekitaldi ugari izango da; larunbatean, besteak beste, futbito txapelketa finalak jokatuko dira, herriko plazan, hilaren 15ean, 14:00etatik aurrera —aurten eguerdi partean jokatuko dira finalak, eta ez arratsalde, egun horretan manifestazio zabala egitekoa delako Bilbon, 17:30ean, Batasunaren ilegalizazioaren kontrakoa hain zuzen—. Seigarren urtea da Azpeitian Gazteok Zer?!-ek futbito txapelketa antolatu duena, eta aurten 22 herritar inguruk parte hartu dute; 22 taldek dena. Gazte Astea zehar jokatuko dira kopako eta ligako finalerdiak, Betharrametako ikaste txean.

Ohi bezala, larunbat iluntzean afaria egingo dute azoka plazan futbito txapelketan parte hartu dutenek eta gainontzekoek.

Gaztetxe zaharra hiru iruditzen



ZAZPI URTEZ ZABALIK. Azpeitiko Gaztetxe zaharra (Erdi kalean zegoena) 1986 aldera ireki zuten, eta zazpi urtez mantendu zuten zabalik Azpeitiko Gazte Asanbladak. Denbora horretan, hainbat ekitaldi egin zituzten lokal horretan; argazkiko kontzertua, esate baterako.



ITXI ZUTENEKOA. 1993ko urriaren 13an itxi zuten Gaztetxea Azpeitiko Udalak, “aurretik inolako abisurik eman gabe”, Azpeitiko Gazte Asanbladako ordezkariak hurrengo egunean salatu zuten. Itxi zuten egunekoa da goiko argazkia, *Egin* egunkaritik hartutakoa.



BESTE SAIOA. 2000ko uztailaren 15ean, Gaztetxe zaharra okupatu egin zuten herriko hainbat gazte. Makina bat lagun bildu zen egun hartan, aldarrikapen gisa. Bi egun beranduago kalera bota zituzten ertzainek. Alokairuaren bidea baztertu eta udalaren aldetik “erantzunik jaso ez” ondoren hartu zuten erabakia gazteek.

EGITARAUA

EKAINAK 11 (asteartea)

● 19:00. FUTBITO.

Futbito Txapelketako kopako finalerdiak. Betharrametán.

EKAINAK 12 (asteazkena)

● 18:00. TAILERRAK.

Serigrafia eta larrugintza ikastaroak. Udaletxe azpian.

EKAINAK 13 (osteguna)

● 19:00. FUTBITO.

Ligako finalerdiak. Betharram.

EKAINAK 14 (ostirala)

● 19:00. HITZALDIA.

Gaia: *Gaur egungo baloreak*. Udaletxeko arkupeetan.

● 22:30. TXISTEAK.

Mañukorta eta Zeberio txiste kontatzen. Korrale tabernan.

EKAINAK 15 (larunbata)

● 14:00. FUTBITO.

Kopa eta ligako finalak. Plazan.

● 21:00. HERRI AFARIA.

Azoka plazan.

Gazte guneari buruzko proposamena

AGZ-k mahai gainean jarritakoa

Hauxe da Azepeitian Gazteok Zer?!-ek gazte lokalari buruz 2000ko maiatzean eginiko proposamenaren laburpena.

ZERGATIK DAGO BEHARRA?

● **EKITALDIAK.** Herrian hainbat eta hainbat ekitaldi antolatzen dira, baina horrek aurretik lana eskatzen du: bilerak, propaganda... Horrek gazte gunearen beharra biderkatu egiten du.

● **KOMUNIKAZIOA.** Azepeitian gazteen artean *koadrillismo* handia dago, eta komunikazioa oso mugatua da. Gazteen elkar ezagutza bultzatu nahi dugu; horretarako, denok elkartuko gaituen guneak abantaila asko eskaini liezaizkiguke.

● **HERRIA BIZIRIK.** Herria bizirik nahi baldin bada, ezinbestekoa da gazteria bizia. Gazteok gure aisia antolatu, gauzak sortu eta ikasteko, ezinbestekoa dugu gure kabuz bizitzen ikastea.

GAZTE GUNEAREN IZAERA

● **IREKIA.** Zentzu guztietan irekia behar du izan. Gazte ororentzat, edota gazteen arazoan inguruan lan egin nahi duen ororentzat irekia, hain zuzen.

● **ZABALA.** Funtzionamendua definitzerakoan, herriko gazte denek bere iritzia adierazteko eta garatzeko aukera izango dute.

● **AUTOGESTIOA.** Gazteen interes eta sentsibilitate ezberdinak indartu behar dira, autogestiorako baliabideak eskaini.

GAZTE GUNEAREN ANTOLAKETA

● **BARNE EGITURAKETA.** Ekintza ezberdinak egiteko gunea izango da. Hala, bilera gelak, almatzen bat, eskulanetarako gela... izango ditu.

● **FUNTZIONAMENDUA.** Taldeetako eta koadriletako ordezkariak osatuko dute batzar irekia. Haien ordezkari moduan, talde eragilea sarriago bilduko da, eta koordinazio lana egingo du. Talde eragile horrek eramango luke aurrera asteroko dinamika.

ESKAERA ZEHATZAK

● **GAZTEEI.** Eskariarekiko orain arteko atxikimendua, eta inplikazioa.

● **UDALARI.** Gazteekin gazte lokalaren proiektua adosteko bilerak martxan jartzeko eskakera.



INFORMAZIOA:
Makina Erramintaren Institutua
San Roke Auzoa, 1
Telf. 943 74 41 32
Faxa. 943 71 41 53
email: amaia@fmh.es
www.fmh.es



2002 - 2003 IKASTURTEA HEZIKETA ZIKLOA

GOI MAILA (A eta D ereduak)
- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Industri Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILA (A eta D ereduak)
- Mekanizazioa



Izena emateko epea: Ekainaren 3tik 12ra, biak barne

amuko zubitik Jabier Altuna



BASAZABAL EDO ZELAI-LUZE

Aurreko artikuluari Iban Arregik emandako erantzunak (ez nuke nahi polemika bihurtzerik) gogoeta hauek ekarri dizkit.

Haren azken esaldiak zioen egunkari bat edo beste irakurtzeak ere (ez honek bakarrik) egiten gaituela euskaltzaleago, abertzaleago, konformistago, solidarioago... edo ez; ados orokorrean baina hutsune asko ditu.

- Azpeitiko udal hauteskundetan alderdi abertzaleek jaso dituzte zinegotzi denak; kon-tuan izanik urtean 156 milioi jasotzen dituela *El Diario Vasco*-k hemendik, ez dirudi irakurle askoren abertzaletasuna asko ahuldu duenik.

- *DV* irakurtzen duten solidario asko ezagutzen dut; *Gara*, *Egunkaria* edo *Deia* irakurtzen dutenak ere bai, noski. *Gara* irakurri eta zezenak hiltzearen aurka mobilizatzen direnak baina zenbait pertsona hiltzen dituztenean kalean agertzen ez direnak ere badira; baita azken egunetan torturatuta izandako gaztearen argazki beldurgarriari begiratzea baino

alboko eskaparateko jantziari kasu handiagoa egin eta *DV* irakurtzen dutenak ere.

- Zer da abertzaleago izatea? Zein da abertzaleago? Nola neurtu? Aberri Egunean ikurrina balkoian jartzen duena? Gabonetan Euskadik jokatzeko duenean aurpegia ikurrinaz marraztuta doana? Basazabal Elkartean ikurrina daukagu horman, Zelai-Luzen ez; abertzaleago al da gure elkarteak? Abertzaleago al da Azpeitia han ikurrina dagoelako?

- Aurkakoen ikuspuntua jakitea ere komenigarria da (nahiz eta ez izan azpeitiarrok *DV* irakurtzearen arrazoia; berriro diot, nork irakurtzen ditu editorialak?) Abertzale euskaldunak egunkari abertzaleak bakarrik irakurtzen badituzte (eta abertzale espainolak beraie-nak), langileak sindikatuena bakarrik entzuten badute... Gu bezala ikusten ez dutenak idazten edo esaten dutenaz ohartzen ez bagara, gure gizartea pobregoa izango da.

Gogoeta asko honi buruz, baina lekurik ez.

azketako ude Ainhoa Odriozola



‘AZPEITIKO MARTXA EZTEN LEHENGUE’

Asteburu gauetako martxa asko jaitsi omen da. Alde ezberdinetatik iritsi zait berria. Tabernariak kexu omen dira, koadrilakoen eta ezagunen ahotik ere entzun dut, “hau ezten lehengue”, eta nire kabuz ikustea pentsatu eta, zalantzarik ez: hau ez da lehengoa.

Denbora da sistematikoki larunbat gauero irteteari utzi niola. Niri bezala, hirugarren hamarkadan sartu den askori gertatu zaio. Arrazoiak, anitz eta aldakorak. Adinak zerikusia du, juergarako sasoa galtzen delako, eta bizitza planifikatzen hasten zarelako. Ez da hori guztia. Musikak ere atzera eragiten du, *bakallau*ek dezibelioen poderioz tabernatik bultzaka ateratakoak mordo gara. Ezin ahaztu ekonomia: etxebizitzaren salneurriak ikusita, nonbaitetik kendu beharko... Kontua da kontsumizioa garestitu dela. Tragoa garesti, presaka edan behar, burrunbarekin elkar entzun ezinda. Horretarako, etxean hobeto.

Gogoan dut, larunbatetan irtetea sakratua zenean, Alemanian ikasten zen lagunak bueltan kontatua: “Han jendeak ez din apenas irte-tan; etxean juntatzen ditun eta bertan festa”. Pentsaezina orduan guretzako, Alemania, Martitz baino urrunago ikusten genuen. Baina euroa etorri da, eta Europa berarekin... Txanponak eta prezioek Europako bizi moldea dakarte, oharkabean baina indartsu. Onerako edo txarrerako norberak juzka dezala.

Tabernarien kexuak eta nahiak errespetagarriak derizkiot, ogibide dute. Jendea urritu eta gaztetxoak nagusitu, negozioa behera. Baina, azken finean, aisialdia igarotzeko era bat da soilik, aukera gero eta zabalagoaren artean. Agian, bezeroaren nahi eta eskari berriei begiratzeko egin beharko da lan, garai berrietara egokituz. Agian ez da berriro *lehengue* izango, baina nik Azpeitian giro jatorrean parrandak botatzeko asmoa ez nuke galdu nahi.

puntie ataeiez

Enekoitz Esnaola

ZENBAGARREN GERATU GARA? ZAZPIGARREN

Iazko maiatzaren 13ko EAEko hauteskunde- ondoan, buruzagi jeltzale batek honakoa botatu zuen, poz-pozik, kanpaina mediatikoari eta bozketari buruz: “Garbi geratu da berriro: euskal herritarrok [EAE-kooz ari zen, jakina] era batera irakurtzen dugu eta beste era batera pentsatu”.

Orain bi aste, Eurovision izan zen gauean, “zenbagarren geratu gara?” galde-ka ibili ginen herrian lagun bat eta biok, eta ia denek: “Zazpi garren”. “Ah! España zazpi garren orduan”. Eta harridura aurpegiarekin begiratzen ziguten.

Garbi geratu da berriro: azpeitiarrok era batera irakurtzen/entzuten/ikusten dugu, baina botoa (*pentsatu*) abertzalea... baina irakurtzen/entzuten/ ikusten dugunaren arabera aktuatzen dugu.

bota bertsue

Beñat Lizaso

MIKEL GOÑI

Azkenaldian beste hitz gairik nola ez zaigun suertatu Mikel Goñiren kulebroi honi neurria nahi diot hartu. Finalerdiak suspendituta bere onra du jokatu, kokainarekin kolokatu ta pelotan deskolokatu.

Positiboa eman edo ez bazen zenbait zeremoni eta enpresak suspenditzeko hartua mila harmoni. Orain prestatzen hasi omen da eta gustora nago ni ea noizbaiten ikusten dugun guztiok nahi dugun Goñi.



EHNA. Azpeitiarrok geure euskal herritar-tasuna gehiago azpimarratzeko aukera paregabea daukagu, udaletxean jadanik atera baitezakegu euskal nortasun agiria: EHNA. Ez galtzeko aukera da.



EZKERRETEGI. Larunbat gauetan, gustuen daudenean, tabernak itxita Ezkerretegirako biderei ekin ohi zaió gehiengetan, etxeokari baino lehen. Tamalez, han gehiengetan giro petrala izan ohi da nagusi.



BIZIBERRITZEKO PLANA. Pasatu dira dagoeneko sei hilabete Azpeitian Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia "abian" jarri zenetik. Baina zertan da? Non daude pausoak? Non daude emaitzak?...

gutunek

Asteburu gauetan ba al dago autobusik?

Orain dela hilabete batzuk prentsan irakurri nuen larunbat gauetan Azkoititik Azpeitira eta Azpeititik Azkoitira artean autobusak jarriko zirela. Badakit, Azkoitiko San Andres jaietan, gauetz, autobus zerbitzua izan zela bi herri hauen artean, neuk erabili bainuen. Eta zenbait jaietan ere jartzen direla badakit, era berean. Baina, asteburu gauetan zerbitzu hori ba al dago?

Egia esan, prentsan irakurri besterik ez nuen egin berri hori. Eta harrezkero ez dut ezertxo ere entzun kontu horren inguruan.

Autobus zerbitzu hori martxan bada, zergatik ez da egin publizitaterik horren inguruan? Ez al da jakinarazi (beste batzuetan ohi bezala) prentsa bidez, kartel bidez...? Eta, ez badago horrelako zerbitzurik, ez al da, behar den lekuan, aztertu aukera hori?

hemerrotekie

Barruan daukagun lekua mugatua da

Juan Luis Zabala (Egunkaria, 2002-05-04)

Ari gara zerbait ikasten, ikasi beharrekoak, alajaina! *Putz*-ek elkarriketa egin Pako Aristiri, Pako Aristik sekulakoak bota, Sustatuk sekulako horietan sekulakoenak aukeratu eta sare-ratu, erantzunak jaso, polemikatxoak piztu eta, hara miraria!, orain denok hurrengo *Putz* noiz eskuratuko! Jokaldi bikaina, arranak ezik! Futbol modernoan hain boladan dauden geldikako jokaldi entseatu horietakoa dirudi. Eta gola dotorea izan da benetan! Jokaldiaren errepikapena ikusi nahi baduzu, www.sustatu.com helbidera jo besterik ez daukazu, irakurle. Ikusi eta ikasi!

Oso denbora gutxian erantzun sail luzea eragin dute Sustaturen webgunean Pako Aristiren adierazpenek. Zer pentsatua ematen du horrek (...) Pako Aristik *Putz* aldizkarian egin dako adierazpenen artean, bertsolariei buruzkoek piztu dute erreakzio gehien: "Bertsolaria jende arraroa duk oso", adierazi du Pako Aristik. "Ez duk fidatzeko jendea. (...) Sentitzen duten oso gauza gutxi esaten ditek, oso-oooso gutxi (...). Inpostorerik handienak dituk".

Nire ustez, zerbitzu hori izatea interesgarria litzateke; eta ez jaietan bakarrik, asteburu oro gazte jende andana mugitzen baita herri batetik bestera. Denok dakigu, ezertxo edan gabe bakarren batzuk besterik ez di-

rela ibiltzen. Eta herri batetik bestera mugitzeko autoa hartzen dugula. Beraz, guztion onerako izango litzateke, gazteontzat, familiarentzat...

Gogoan izan Urrestillako jaiak ere badatozela. Orduan auto-

bus zerbitzua jarriko balitz, bikain! Bai hara joateko asmotan direnentzat, eta baita urrestildarrentzat ere. Agian jende gehiengo animatuko litzateke. Eta festan lasaiago ibiltzeko moduan izango ginateke denok ere.

Miren Larrañaga

'El Diario Vasco', Patxi Zabaleta eta dianak

Ba nik ere zerbait esan nahi dut *El Diario Vasco*-z. Adibide batekin. Hau da, orain dela gutxi bi asteren buruan bi elkarriketa egin zizkieten DVn Patxi Zabaleta, Aralarko buruari, eta, besteak beste, bietan galdera hau egin zioten: "ETAren dianan zaudela uste al duzu?".

Ez iruditzen larria dela galdera hori egitea? Ez iruditzen...

Baina lasai denok, segi dezagun DVrengan konfiatzen.

Iñaki Odriozola

akullue



Leire Ostolaza

PARRANDAKO BERTSOLARIEI OHARRA

A maitu da bertso eskolako aurtengo ikasturtea, baina Erriarraitzen baiditugu hurrengorako planak.

Denok dakigu parrandan gabiltzanean, eta batez ere tabernak ixten dituzten garaian, izaten direla bertso saio mozkorrak; gehiengotan bi edo hiru lagun aritzen dira (gara) kantari eta beste bi edo hiru haiei entzuten.

Hori horrela dela jakinik, bururatu zaigu datorren udazkenera edo negura begira tabernetako bertso txapelketa moduko bat antolatzea. Adin guztientzako zuzendua izango litzateke eta, gainera, hiruko taldeak osatuko liriteke tabernetan saioak egiteko. Ziurrenik ostiral gauetan izango dira saioak afari baten ostean, eta epaileak jende artean nahastuta egongo dira, kantatzen dutenen presio hori jasan ez dezaten. Sariak ere sinboliko eta *katxondo* samarrek izango dira, jendearen partehartzea eta herrian bertso giroa sortzea izango baitira helburu nagusiak.

Aurretik udako festa guztiak dituzue, herrikoak eta auzoetakoak, zuen bertso-kera hobetu eta inguruko bertsolariak txapelketarako animatzeko. Kantatu nahiko bazenu bertso eskolako norbaitek, harremanetan jarri.

inkestie

Joan ohi al zara auzoetako eta kaleetako festetara? Zeintzuetara?



Pedro Aranburu

(langilea)



“Asteburuetan-eta ez dugu denbora askorik izaten. Baina betiere bueltaxka bat ematera joan ohi gara, kafe bat hartzera eta. Semea sarrigi joan ohi da”.

Ioritz Delarriba

(langilea)

“Joaten naiz auzoetako festetara. Batik bat Sanjuandegiko festak ditugogoko eta haletara urtero joaten naiz. Sanjuandegikoak

webeko albistiei erantzunez

GAIA: Uztarria Kultur Koordinadoraren web guneko ‘albistiek’ atalean Garmendipe futbol zelaia erabilpenari buruz sesioan ibili da herriko jende ugari. Hona hemen gutun sorta bat:

Garmendipeko futbol zelaia norentzat?

Jakina da Azpeitian futbol zelai ederra dugula, eta bat baino gehiagorentzat harrotzeko arrazoi bat ere badela. Baina beste gauza bat da norentzat den hain zelai ederra.

Udalak orain gutxi gazteentzako aisi lekuetako bat bezala aurkeztu du herriaren aurrean, baina hori ez da errealitatera hurreratzen. Zelai hori Lagun Onak Futbol Taldearentzat bakarrik da eta hori urte osoan pairatu dugu Ikasberriko Futbol Taldekook.

Astea joan, astea etorri zelai eder horri begiratu eta alboko hondarrezko (harri eta hauts) futbol *tokian* jolastu behar izan dugulako. Talde aurkariaren betiko galdera: “Horrelako futbol zelaia eta nola jolasten duzue zuek hemen?”.

Gure galdera ere horixe da eta tokatzen zaionari luzatzen diogu. Lagun Onak-ek adinako eskubidea dugu futbol zelai horretan jolasteko, herriarena da zelai hori eta gu ez al gara herri-tarrak? Egia da ez dugula Hirugarren Mailan edo Preferentzen jolasten, baina gure ilusioak eta gogoak maila guztiak gainditzen ditu.

Denboraldi honetan, gehienez astean hiru partidu jolastu dira Garmendipen eta horrelako zelaia izanik iruditzen zaigu probetxu handiago atera diezaiogekula. Ez dugu beste mundukorik eskatzen, ez bertan entrenatzea eskatzen, astean edo bi astean behin pare bat partidu jolastea eskatzen dugu.

Beraz, hau guztia esanik eta gauzak argi utziz, Ikasberriko Futbol Taldeak esan nahi du hurrengo denboraldian gure eskubidea den bezala, Garmendipeko futbol zelaian jokatuko ditugula gure neurketak. Ez zaigulako horren zaila iruditzen akordio batera heldu eta Lagun Onak eta Ikasberri taldeen, biek, Garmendipeko futbol zelaian jokatzea partiduak.

Ikasberri Futbol Taldeko kideak

Denon artean adostua

Ez nekien herriko beste futbol talde bati ez zitzaiola zelaia uzten. Zenbat eta gazte gehiago ibili futboleko hobea! Harrobia egiten ariko gara. Era guztietako gazteek kirola egitea baino hobea gogorik ba al da? Denontzako lekua bada. Herrian dauden elkarteak daudela, zelaia denona da eta denon artean adostu beharko da erabilera. Animo bada eta adostu!

Lagun Onak-eko zale zaharra

Belar artifizialdun zelaia

Ez dakit zer irizpide dituen Lagun Onak-ek zelaia erabiltzeko, baina, kanpotik begiratuta, ez da gai erraza. Ikasberrikoek ere edukiko dute igual eskubidea Garmendipe erabiltzeko, ez dut esango ezetz. Ikasberrikoei galdera pare bat:

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA

1. GALDERA: Onartuko al zenuke diru truk zure etxebizitzako teilatuan telekomunikazio antena bat?

- Bai: %54
- Ez: %45
- Berdin dit: %1

Uste dut herri txikietako festak-eta galduta daudela, eta berdina gertatzen da auzoetako eta kaleetako jaiekin. Jende heldua gehiago ibiltzen da festa horietan eta gazte gutxi”.

Andoni Sagardia

(ikaslea)



“Bai, asko gustatzen zaizkit auzo eta kaleetako festak. Batez ere Urrestillakoak gustatzen zaizkit niri. Festatan barrakak gustatzen zaizkit gehien eta bertan egoten den giroa”.

Jose Anjel Aramendi

(langilea)



“Normalean ez naiz joaten auzoetako festetara. Uste dut ohitura galdu egin dela.

Hori bai, Urrestillakoe-tara ostiralean joan ohi gara, beste egunetan helduak ibiltzen baitira han”.

Mari Jose Soraluze

(langilea)

“Ez dut ohiturarik joateko.

Izan ere, aste bukaeratan normalean kanpora joaten naiz”.

gogoko ditut bertan izaten den giroagatik”.

Miren Garmendia

(langilea)



“Eliz kaleko festetara baino ez naiz joaten. Giro ona egoten da eta lagunartean ibiltzen gara. Baina, bestela, ez naiz oso festa zalea”.

Olatz Lakonba

(ikaslea)

“Ez dugu ohiturarik auzo eta kaleetako jaietara joateko.

“Lagun Onak-ek adinako eskubidea dugu Garmendipen jolasteko”

Ikasberri Futbol Taldeko kideak

“Denon artean adostu beharko da Garmendipe futbol zelaiaren erabilera”

Lagun Onak-eko zale zaharra

“Zelaia erabiltzerakoan egon behar du antolaketa batek, koordinazio batek”

Zelai



• Neurtu al duzue astean zenbat taldek jokatzen duten Garmendipen? Alegia, kadeteek, jubenilek, partidu denak han jokatzen al dituzte?

• Aurrekoarekin lotuta, egia da zelai ederra dagoela herrian, baina zelaia eder egoteko partidu gutxi jokatzen dituzte zelaian. Ikasberriko jubenilek, neskek... zelaian jokatuko balute, Lagun Onak-eko jubenilek, neskek, kadeteek... ere orduan zelaian? Astero hiruzpalau partidu Garmendipeko zelaian? Neguan ere bai? Eta euria egiten duenean? Berrit diot: gai konplikatu da. Gaur egun, baseko futbola bultzatzeko politika egokia egin nahi bada, ezinbestekoa da gazteek beste era bateko zelaiak eskura izatea —belar artifiziala, esaterako—, eta han ikastea futbole-

an. Izan ere, herrian belar naturala duen zelaia eder mantentzeko, zelaia jende gutxi zapaltzea komeni... Eta talde denek badute han jokatzeo eskubidea, orduan ahaztu zelaia eder edukitzearekin... Herriarrentzat, gazteentzat, Lagun Onak-entzat, Ikasberrirentzat..., denentzat onena litzateke belar artifizialdun Garmendipe bat edukitzea, denentzako zabalik eta eskuragarri.

Joxe

Nola egin liteke?

Arazo handi bat dago Azepeitan: arlo batzuetan plangintza zabal baten falta. Hau da, badira arlo batzuk herrikoak, udala eta herriko taldeak ukitzen dituztenak. Horietako bat da kirolarena; beraz, kirol azpiegitura. Zer gertatzen da Azepeitan? Gaitz bat dagoela. Taldeak udalari diru laguntzak eskatzera mugatzen dira, eta jasotakoan *allakuidau* beste guztia(k). Eta udalak ere eskuak garbitzen ditu laguntzak banatutakoan, arazoak besteei pasatuz bezala. Orain Ikasberri Garmendipen jokatzeo eskaera egiten duela jakin dugu. Ez ahaztu: herriaren zelaia da Garmendipe, eta, beraz, herriarrek erabiltzeko eskubidea dute. Baina zelaia erabiltzerakoan egon behar du antolaketa batek, koordinazio batek. Azpiegitura horren eta futboleko beste azpiegituren plangintza zabal bat behar da. Mahai bat eratu behar da. Bertan kirol plangintza zabal bat egin behar da. Ez soilik futbolekoa, baita beste kirolekoak ere. Eta herrian ez da egin behar kiroleko plangintza zabal bat soilik; euskarakoa, kulturakoa eta antzeko beste arloetakoak ere bai. Arazo gutxiago legoke.

Zelai

GAIA: 'Etxebitzak Azpeitian'. Etxebizitza eskubide izanik, bermatua al dago? Babes ofizialekorik behar al da? Etxebizitza hutsekin zer egin? Alokatzeko aukeraz zer?...

Oharra: hurrengo aleetan ere eztabaida hau plazaratuko du Uztarriak; beraz, idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

ETXEBIZITZAREN ALOKAIKUA BULTZATUKO DUEN ESKUHARTZE PUBLIKOA BEHAR DA

Beti entzun izan dugunez, etxebizitza norbanako orok duen oinarritzko eskubidea da. Baina, praktikan, administrazioek ez dute eskubide hori bermatzen, eskubide sozial hori sistema kapitalistaren oinarritzko legeekin kontraesanean dagoelako. Ondorioz, etxebizitzaren kasuan ere, merkatuaren logika nagusitzen da: merkataritza eta jabetza eskubidea etxebizitza eskubidearen gainetik daude. Eta horren ondorioz ematen da hain famatu egin zaigun etxebizitzaren espekulazioa, eta, neurri handi batean, etxebizitza arazoa. Eta zer da ba etxebizitza arazoa? Bi hitzetan esateko, merkatuaren bidez etxebizitza eskuratu ezina.

ETXEBIZITZA ETA GIZARTEA. Teoria alde batera utzita, praktikan Azpeitian ere etxebizitza arazo latza dugu. Gizartearen gero eta zati handiagoak ezin du etxebizitzarik eskuratu. Dena den, oraindik gazte asko, norberaren ahalmenetik gora dauden etxeak erosten ari dira, hauetako gehienak gurasoen laguntzarekin. Alabaina, guztiek zorte hori ez izateaz gain, urteak aurrera joan ahala, *koltxoi* lana egingo duten gurasoak gero eta gutxiago izango dira, eta gero eta gehiago izango dira etxebizitzarik eskuratu ezingo dutenak. Eta honek erabat baldintzatuko du gure herriko etorkizuneko gizartea.

Izan ere, etxebizitza arazoak izugarritzko eragina du gizartean. Definizioz, etxebizitza, gizarte mailan funtsezko elementua da: norberaren bizileku izateaz gain, familiarik eta lagunarteko harreman askok etxebizitza dute oinarri. Horrez gain, gurasoengandik emantzipatzeko funtsezko tresna izateaz gain, gero eta gehiago aisialdirako gune bihurtzen ari da. Imajinatu, beraz, funtziok betetzen dituen etxebizitza gizarteko zati handi batek eskuratu ezina.

Gizartean ematen den dualizazioak ere, gero eta gehiago, etxebizitza du oinarri: batetik, lan finkoa eta etxebizitza duen jendea dago; eta bestetik, lan baldintza txarretan dagoen eta etxebizitzarik ez duen jendea. Gizartea zatitzeko tresna bilakatzen ari da, beraz, etxebizitza.

Baina zer dela-eta ematen da etxebizitza arazoa? Arrazoiak aztertzen hasteko, oso urrutira begiratu beharrik ez dugu. Gure inguruan ditugun administrazioek, herritarren dirua herritarren onerako erabili beharko luketen horiek (Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Azpeitiko Udala) darabilten etxebizitza politikaren helburua ez da etxebizitza premia konpontzea.

ADMINISTRAZIO POLITIKA, PREMIA KONPONTZEKO?

Azpeitiko Udalaren etxebizitza politikak (inguruko beste administrazioenak bezala) eskariari (eta ez premiari edo benetakoko beharriari) erantzuten dio. Zer dela-eta ari dira atzeratzen hain presaka iragarri zituzten "Babes Ofizialeko Etxebizitzak"? Ez ote 40 milioi pezeta (edo 24.000 euro) balio duten etxeak oraindik saltzeko



daudelako? Etxe hauek denak saldu arte ez ote ditugu "Babes Ofizialeko Etxebizitzak" izango?

Horren guztiaren eraginez, gaur egun Azpeitian etxebizitzak erosten edo eskuratzen ari diren askok ez daukate etxebizitza eskuratzeko premiari. Askok, lehengoa baino etxebizitza handiagoa erosten dute, lehengoa hutsik utziz. Horrekin ez dut esan nahi ahal duenak etxe hobeto bat erosi behar ez duenik. Norberak bere diruarekin nahi edo ahal duena egiten du. Baina administrazioek bai egin dezaketela zerbait, egoerari buelta ematen hasteko, premiari erantzuten hasteko.

Azpeitian etxebizitza premiari erantzun egin behar zaio, orain hain oparo dirudien herri hau, etorkizun hurbil batean, husten hasi ez dadin. Horretarako, lehenik eta behin premia aztertu behar da. Zeintzuk dauden etxebizitza premian, haien egoera, ahalmen ekonomikoak... Premian daudenetatik zenbatek bizi asmo duen bakarrik, zenbatek bikotetarekin, zenbatek koadrilan, zenbat elbarri dauden premian, zenbat egongo lirakeen prest etxebizitza bat alokairuan eskuratzeko. Etxebizitza politika egoki bat martxan jartzeko hau dena aztertu behar da.

Baina egoera aztertuta soilik ez goaz inora. Egoerari buelta ematen hasi behar da; bestela, pixkanaka, etxeak, kaleak, ikastetxeak, parkeak husten hasteko arriskua baitago.

Horretarako bidea: alokairua bultzatuko lukeen eskuhartze publikoa. Alegia, Azpeitiko Udalak alokairuaren aldeko apustua egin

“ Etxebizitzaren espekulazioarekin bukatzeko bide egokiena alokairua eskaintzea da. Bestela, etxebizitzak merkantzia hutsa izaten jarraituko du”

Mikel Arregi

“ Beti gomendatzen dugu etxebizitza berri bat erosteko kontratuan adierazi egin behar dela etxebizitza noiz bukatuko den”

Mila Urzelai

KONTSUMITZAILEEN KEZKA ETXEBIZITZA DA

az ireki zen Azpeitian kontsumitzaileentzako informazio bulegoa, eta 80 kontsulta izan zituen 2001ean. Gehienak, %30 (24 kontsulta) etxebizitzari ingurukoak izan ziren.

Etxebizitzari lotutako informazio eskaeren inguruan bi talde bereiziko genituzke. Bata, bizilagunen komunitateei lotutakoa da. Kasuotan etxebizitzako bizilagunen arteko tira-biren inguruan galdezka etortzen dira eta arautzen dituen legea jabetgo horizontalaren 8/1999ko legea da. Edota estatutuak edukiz gero, horiek begiratu beharko dira. Etxe zaharretan normalean ez dituzte estatuturik, baina, egun, ia etxebizitza denek dituzte, eta bertan zehazten denari kasu egin behar da.

Bigarren taldean etxebizitzaren salerosketaren inguruan aholku eske datozenak dira. Baina kasu desberdinak dira, etxebizitza bera dagoeneko eraikita izan edo egitear denean. Eginda dagoena edo bigarren eskuko bat erostean, kontuan hartu behar da: etxebizitzaren kokalekua eta ezaugarriak zeintzuk diren. Udaletxean begiratu egin behar da inguru horretan proiektu berririk egitekoak diren. Erostera goazen etxea tekniko batek ikustea. Erregistrotik pasatzea ere komeni da jakiteko, etxebizitza horrek zer karga daukan. Eta komunitateko kuotak eta gastuak ordainduta eta araei gainbegirada bat ematea ere garrantzitsua da.

ETXE BERRIEN KASUAN. Etxe berria baldin bada, berriz, erosleak kontratistari aurrerapen bat ordaindu ohi dio. Eta kontratistak diru horiek aseguru etxe batekin edota banketxeako abal batekin aseguratuta eduki behar ditu, eta horretarako aparteko kontu bat izan behar du kontratistak. Hori begiratu beharra dago; kontratistari emandako diru hori ziurtatu behar da gainera erositako etxebizitza berria finantzatzeko erabiliko dela. Kasu hauetan, sarritan arazoak izaten dira epeekin. Guk beti gomendatzen dugu kontratu bat sinatzen denean, adierazi egin behar dela bertan noiz bukatuko den etxebizitza. Honela, epea bete eta bukatu gabe baldin bada, bide eta neurri desberdinak hartzeko aukera baitago.


Beste kasu batzuk ere gertatzen dira; hala nola, etxea erosi eta bukatu ondoren akatsak izatea. Kasu horretan konponbidea eskatzen hasteko epea nahiko motza da: etxebizitzak egitearen lizentzia 2000ko maiatzaren 6a baino beranduagoa duten etxebizitzetan urtebetekoa baita.

Etxeak eraiki eta hamar urte arteko epea izaten da eraikinean bertan arazorik edo akats larriak balego jabeak kontratistari erreklamatzeko. Baina kasu hauek aurrera eramateko tekniko baten edota batzuen txostena izatea komenigarria da, etxebizitza eraiki zen uneko akatsa dela ziurtatzeko.

Etxebizitzaren alokairuaren inguruan ere informazio eske etorri izan da jendea. Kezka nagusienak etxebizitzari berari dagozkion ordainketen ingurukoak dira. Kontribuzioa, konponketak, komunitateko gastuak eta abar, etxe jabeak edota etxea alokatuta daukanak ordaindu behar dituenaren kontuak sortzen ditu buruhauste gehien.

Mila Urzelai (Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoko teknikaria)

Mikel Arregi (soziologoa)



Inaxita, Imaku eta Mari Karmen, Santiago bideari ekin baino lehen, Orreagan.

Nerea Aranburu

Betidanik gustatu izan zaie ibiltzea, eta askotan komentatzen omen zuten beraien artean Santiagoko bidea egitearena. Oraingoan ordea, pentsatu eta egin. "Aurreko urtean, Urbian geundela Santiagoko gaia atera zen. Animatu eta han erabaki genuen hirurok bidea egingo genuela", diote. Abentura honen protagonistak hiru emakume azpeitiar dira: Mari Karmen Larrañaga, Inaxita Campos eta Inmakulada Lizarra, hain zuzen ere.

Apirilaren 1ean atera ziren Nafarroatik, Orreaga herritik. Haien asmoa *Frantsesaren ibilbidea* deiturikoa egitea zen, eta horren arabera, irteera puntua Orreagako herria da. Guztira 750-800 kilometro egin dituzte. Hiru emakumeen esanetan, ibilbidea egiten ari ziren heinean eguna nahiko ondo antolatzen zuten. "Goizean goiz jaikitzen ginen, zazpiak aldera. Bukaera aldera, ordea, beranduxeago esnatzen ginen". Prestatu ondoren, bideari ekiten zioten. Ordu batzutan ibili eta bide ertzean bazkaltzeko tokiren bat aurkituz gero, bertan gelditzen ziren bazkaritan, "baina toki batzuetan ez zegoen ezer, ezta taberna bakar bat ere. Kasu horietan bidean gelditu eta zerbait jaten genuen", dio Inaxita Camposek. Bazkaldu eta berriro bideari ekin

SANTIAGORA ERROMES

Hilabete pasatxo da hiru emakume azpeitiarrek Santiagoko bide ospetsua egin zutela; hain zuzen, 24 egun egin zituzten oinez



● **IBILBIDEA.** Hiru azpeitiarrek *Frantsesaren ibilbidea* deiturikoa egin dute; Orreagatik Santiagorako bidea, hain zuzen ere.

● **KILOMETROAK.** Guztira 750-800 kilometro egin dituzte oinez. Batez beste, 30 kilometro egunean.

● **EGUNAK.** 24 egun behar izan zituzten ibilbidea betetzeko, alboko mapan zehazten dena baino gutxiago. Mapa hori eramanean zuten erreferentziatzat, baina egun batzuetan bi etapa egin zituztenez, 24 egunetan ibilbidea amaituta zuten, 27 egunetan ordez.

behar hurrengo aterbetxera iritsi arte. Egunean bederatzi orduko ibilbidea eginez ibili dira. “Gezurra badirudi ere, hainbeste ordu ibili eta gero, behin dutxa bat hartu eta atzera indarberrituta sentitzen ginen”.

Horrela egin dituzte 24 egun. Oraindik oso gogoan dute Santiagora heldu ziren eguna. “Goizean oso goiz atera behar izan genuen. Artean ilun zegoen eta linterna batekin ekin behar izan genion bideari”. Nahiz eta gertu ikusi helmuga, luzea eta nekagarria egin zitzaizen azken eguna. “Azken bi asteetan, Alemaniako neska bat gehitu zen guregana. Elkar komunikatzeko arazoak genituen, baina ondo konpondu ginen”, dio Mari Karmenek. Bidearen bukaera aldean oso gaizki pasatu omen zuen alemaniarrek, eta horregatik nahiko luze egin zitzaizen azpeitiarrei ere azken eguna.

SANTIAGON. Santiagora (Galizia) heldu orduko agiri bat eman zieten hiru emakume hauei. Agiria sinatu eta hamabietako

“Alemaniar bat gehitu zitzaigun. Komunikatzeko arazoak genituen, baina ondo konpondu ginen”

Mari Karmen Larrañaga

“Toki batzuetan ez zegoen ezer, ezta taberna bat ere. Kasu horietan bidean jaten genuen zerbait”

Inaxita Campos

“Gaztela aldean toki denak ia berdinak dira; oso leku lehorra da, baina ez dago aldaparik”

Inmakulada Lizarra

meza entzun ondoren, bazkaritara; “ondo merezitako bazkaria egin genuen”. Arratsaldean bertan etxera itzultzeko prestaketak egin eta hurrengo egunean iritsi ziren Azpeitira. Bidean hamaika une eder igarota.

Gutxien gustatu zaien lurraldea Gaztela aldea izan omen da, “toki guztiak berdinak direlako; oso lehorra da, baina ibiltzeko ez dago aldaparik”, dio Inmakulada Lizarrak. “Han igarotako egun batean, hiruzpalau ordu eman genituen gari arte batean ibiltzen eta ez genuen persona bakar bat ere ikusi, ez genuen inor aurkitu bidean”.

Oroz gain, oroitzapen eta esperientzia polit bat gelditu zaie: etxera bidean, trenean, Lasarteko gizon batekin egin zuten topo eta Mari Karmenek harriturik gogoratzten du une hura. “Gizonak lehen aldiz bidea egin zuenean, hura hain *engantxaturik* gelditu omen zen, jada zortzi aldiz egin duela bidea”. Hiru emakumeok ez omen dute horrelako intentziorik. ●

zuk ere eman ezazu albistea, agenda, botoa, iritzia...; hartu parte Azpeitiko atayen, erraza da

www.uztarria.com

udal erabakiyek

Zabor bilketa goizeko seietatik aurrera egingo da ordutegi berriarekin

Zaborra biltzeko ordutegia aldatu egin da, eta, ondorioz, udaletik, Alkatetzak, aholku bat luzatu die herritarrei. Hau da: zaborra edukion-tzi grisetan 20:00etatik aurrera botatzeko. Ordutegi berriarekin zabor bilketako kamioiek goizeko seietatik aurrera ekingo diote zabor bilke-tari. Alde zaharreko biztanleei, berriz, zaborra astegunetan 08:00etatik 09:00ak bitartean ateratzea aholkatu zaie, Alde Zaharrean edukiontzirik ez baitago eta karrera ondoetan uzten da zaborra.

Ingurumen
Etxea
Fundazioan
4R Fundazioa

4R Fundazioa bertan behera uztea eta hura Ingurumen Etxea Fundazioan par-taide izatera pasatzea onar-tu zen maiatzaren 17ko udalbatzan. 4R Fundazioko langileak eta egitekoak ere Ingurumen Etxea Fundazioaren baitan geldituko lirake. Azpeitiko eta Azkoitiko udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta enpresa bat-zuk izango dira Ingurumen Etxea Fundazioaren sorrer-an parte hartuko dutenak.

Eudel-en
“adierazpen
zibikoa”
onartua da

Maiatzaren 17ko udalbat-zan Eudel-en (Euskal Uda-len Elkarte) *Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko* “adierazpen zibikoa” onar-tu zen EAJko eta EAko zine-gotzien aldeko botoekin. Batasunak ezezkoa bozka-tu zuen, bere ustez idatzi honekin “Batasunaren ile-galizazioa bultzatzen” dela-ko. Batasunekoek *Euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko printzipioak* idatzia aurkeztu zuten, eta EAJ eta EA kontra azaldu zi-ren eta Batasunekoak be-raiek soilik alde.

‘Joxe Takolo
beka’ aurten
nora?

Idoia Mendizabal / *Joxe Takolo beka*, aurre-nezkoz, Pumorirako espedizio kideek jaso zuten, iaz, Uztarriak bere garaian aurreratu bezala. Orain berriro jarri dute abian deialdia Euskal Herriko Mendi Federazioak, Gipuzkoako Foru Aldundi-ak eta Azpeitiko Udalak. Mendizaletasu-narekin lotutako asmo bat lagunduko du aurtengoan ere beka horrek. Eskaera, Euskal Herriko mendizale federatuek, EAEko mendizaleek, mendi elkarteek edota taldeek egin dezakete.

Joxe Takolo beka-ren izaera aurten arautu du Azpeitiko Udalak (martxoaren 12ko ebazpenean) eta bekak aurreran-tzean izango dituen oinarriak jarri ditu. Eskaera egiteko epea urriaren 31n bukatuko da, eta aurkeztu beharreko le-kua Azpeitiko Udaleko erregistroa da.

3.606 EURO. Oinarrietan zehaztu de-nez, beka, norentzat eta nora joango den erabakiko duen epaimahai taldea, Foru Aldundiko, Azpeitiko Udaleko eta Euskal Herriko Mendi Federazioko kide banak, eta zazpi adituk osatuko dute. Epaimahai taldeak erabakia hartzera-koan, proiektuaren originaltasuna eta maila kontuan izango ditu. Bekak eman-go duen diru laguntza 3.606,07 eurokoa izango da (600.000 pezeta; parte bakoitzak 200.000 pezeta jarriko ditu). Diru laguntza hori bekadunak azaroaren erdialdetik amaiera arte-an jasoko du.

Beraz, oraindik hilabete batzuk pasatuko dira Joxe Urbieta *Takolo* mendizale azpeitiar zenaren ize-neko bekak aurten zer proiektu lagunduko duen jakin ahal iza-teko. ●

Jose Elorrieta

gurien..

ELAko idazkari nagusia

«ELA, hasieran,
indartsuena hemen
inguruan izan zen»

Nerea Aranburu / Maiatzaren 9an inauguratu zen Azpeitian ELA sindikatuaren egoitza berria, Arana Goikoako 1, 2 eta 3 zenbakian. Inaugurazio egunean lokala jendez gainezka zegoen, eta haien artean zen Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusia. Hantxe hitz egin zuen Uztarriarekin.

● **ELAren hasiera haietan Urola-Kostak indar handia izan omen zuen, ezta?**

Bai. Nik ezagutzen dudanaren arabera, orduan nukleo indartsuena Azpeitia-Azkoitia-Zestoa-Zarautz zela esango genuke. Adibidez, bilera batzuk hemen, Azpeitian egiten ziren. Gure ezarpena beste toki batzuetan makalagoa zen, ez soilik Bizkaian, Araban edo Nafarroan, baita Gipuzkoan ere. Ezarpen indartsuena hemen inguruan izan zen.

● **Gero, ordea, ELAko kide asko hiriburuetara joaten hasi zen.**

Franko hil eta urte batzuk beranduago, Euskal Herri osoan sindikatu proiektu bat planteatzeko garaia etorri zen. Orduan hemen inguruko jendea Bilbora, Iruñera eta Donostiara joaten hasi zen. Horrela bete genituen garai hartako gure hutsune nagusiak.

● **Une hauetan nola dago ELA?**

Zorionez, azken urteetan aldaketa handiak egon dira. Oso jende gaztea sartu da taldean, ez soilik afiliazio mailan, baita militante eta liberatu bezala ere. Hori garbi ikusten da Urola-Kostako ELAn.



Azpeitiko noblezia liburuetan eta jendaurrean ikusgai

Nerea Uranga / Azpeitiko Udalak *Nobiliario de Azpeitia: Probanzas de Nobleza e Hidalguía* titulupean bi liburu atera berri ditu. Urtebete-ko ikerketen emaitza izan da lana. Liburuak aurkeztearekin batera, jatorrizko kaparetasunekin —nobleziaren barruan izatearen agiriak dira kapareak— eta informazio panelekin osatutako erakusketa ireki zuen Betharrametako elizan. Bi liburu mardul horietan, 1546. urtetik 1856. urte arteko Azpeitiko 400 kaparetasun espediente jasotzen dira. Bi liburuok ekainaren 19a arte salgai izan dira, erakusketan bertan, Betharrametako elizan; liburu batek 25 euroko salneurria izango du eta bi liburuak erosiz gero 50 euro ordaindu beharko dira. Erakusketa amaitzen denean, berriz, liburuak herriko librudendetan erosteko aukera izango da, baina zertxobait garestiago, liburu batek 30 euroko prezioa izango baitu eta biak batera erosiz gero biengatik 50 euro ordaindu beharko da orduan.

Apellido 1.
Ezeiza
/ Ezeiza
Apellido 2.
Ugartemendia
Fecha
1773

ordutegia

● **ERAKUSKETA.** Ekainaren 19a arte irekita izango da Betharrametako elizan erakusketa. Asteartetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan eta igandetan 12:00etatik 14:00etara.

Aukeztutako liburuetako bat.



zer dago gaizki, zer soberan, zer faltan?



- ERANTZUTEKO EPEA:** Ekainak 18 (asteartea)
- HELBIDEA:** Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)
- AKATSA ADIERAZI** (idatziz edo boligrafoz):
- IZEN-ABIZENAK:**
- TELEFONO ZENBAKIA:**
- IRABAZLEARENTZAT SARIA:** Agirre Oparidendako erosketa txartela.

AURREKO ARGAZKIA...



...ETA SOLUZIOA



IRABAZLEA: Patxi Xabier Galarraga



Patxi Xabier Galarraga izan da 29. garailea. Alde Zaharreko Elkarteko erosketa txartel bat irabazi du. Argazkian, Patxi Xabier bera —eskubian— eta elkarteko kide Oihana Lizaso ageri dira.

“Eskertzekoa da azpeitiarrek eskaini didaten laguntza, batez ere nire taldekoek eta Lagun Arteko kideek emandakoa”

Iñaki Alberdi
(auto gidaria)



Xabier Azkargorta. / UZTARRIA

“Badaukat aulkian jartzeko gogo pixka bat, asko gustatzen baitzait futbol taldeak entrenatzea”

Xabier Azkargorta
(futbol entrenatzailea)

Komun berriak igerileku irekiaren berdegune zabalduan

Nerea Uranga / Astelehenetik igandera, 11:00etatik 20:00ak arteko ordutegian, irekita izango da igerileku estaligabea ekainaren 15etik aurrera eta hiru hilabetez, irailaren erdialde arte. Aurten, beraz, iaz baino hilabete lehenago irekiko da, iaz igerilekua bera egitearen lanak atzeratu baitzuten irekiera eguna.

Aurten ere eraberritze lanak egiten ari dira igerileku estaligabean; iaz aurreikusi ziren beharrak eta hutsak konpontzen saiatuko da udala; besteak beste, komunak egiten ari dira. Iaz, igerileku berriaren aurreneko urtean, bi hilabetean 20.000 lagun ibili ziren, Azpeitiko Kirol Batzordeak pasatutako datuen arabera.

Ekaina eta uztaila bitartean

aukeran izango dira bi igerilekuak, kanpokoak eta estalia. Baina abuztuan igerileku estalia itxita izango da, eta horren arrazoia bertako eraberritze lanak izango dira. Eguraldiak baldintzatuko du kanpoko igerilekua.



Kanpoko igerilekua. Iaz zabaldu zen. / UZTARRIA

bi igerilekuak

Igerileku estalia

- **BERRIKUNTZAK.** Igerileku barruko lurzorua irristakorra zela-eta hondar antzekoa den geruza bat bota zuten gainetik orain dela urte batzuk. Baina orain toki batzuetan kendu egin da, eta berriro lurra irristakorra dago. Abuztuan igerilekua itxi egin nahi da lurra konpontzeko.
- **AURREKONTUA.** Igerileku estaliaren eraberritzeko, 72.122 euro aurreikusi dira aurten.

Igerileku irekia

- **BERRIKUNTZAK.** Komun berriak egingo dira, gizonezkoenak eta emakumezkoenak berezita. Sorosleentzat aldagela eta botikina egingo dira. Hauek kontuan hartuta, eta zabalduko den berdegunea gehituz, kanpoko igerilekua 200 metro karratu zabalduko da.
- **AURREKONTUA.** Igerileku irekiko berrikuntzetarako 150.253 euroko aurrekontua dago.

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
- LABORALA, KONTABLEA
- ASEGUROAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 16 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

KIRURI

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatuan aukera handia

URBISTONDO MARGOAK

“KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK”

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa
zuri esker



NEREA URINGA

ELKARTASUNEZ. Azpeitiak berriz ere eskatu du: "Euskal presoak herrira!". Azkena, maiatzaren 25ean, presoek aldeko elkartasun egunean. Ehunka lagun bildu ziren krosean, bazkarian, manifestazioan... Giro onean ospatu zen aldarrikapen eguna.

Urrestillako frontoia astebetetz itxita

Urrestillako frontoia astebetetz itxita izango da, pintaketa lanetarako. Frontoia ekainaren 14tik 21a bitartean izango da itxita, Sanjuanetarako pintatu nahi baitute udaleko arduradunek. Beraz, frontoia erabili nahi duenak kontuan izan beharko du hori.

Nuarbeko plaza txapelez estali zuten

Nuarben, Trinitate jaietan, Nuarbe Sokatira Taldeak 25 urtean lortutako txapelez jantzi zuten plaza; hain zuzen ere, 780 txapelez. Sokatira Taldeak azken mende laurdenean egindako lan bikainaren fruituak dira txapel haiek guztiak, eta harro erakutsi zituzten.



Nuarbeko txapelak.

Labakaren geroa egun hauetan argituko da

Laster argituko da Mikel Labakaren geroa: Realak Realera igoko duten edo ez. Izan ere, egun hauetan hasiko da Reynald Denuoix Realeko entrenatzaile frantziarra bere lehen erabakiak hartzen. Labakari buruzko aipamen onak omen ditu.

kitzika joyeria
 Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea
 Pastorkua Tabernaren ondoan
 Jose Artetxe, 13 - Tel. 943.15.76.13 - AZPEITIA

AIZPURU AUTOAK
PEUGEOT
 Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

uztaro
Haurtzaindegia
 Azpeitia
 0-3 urte bitarteko umeak zaindu eta hezitzen 27 urteko esperientzia
 JESUS ETA MARIA KOMENTUA LOIOLAKO INAZIO HIRIBIDEA
 ☎ 943-813190

SONS - MARGAR

estetikako azken teknikak
 Enparan, 15-1
 Tel. 813898

LEHORREKO ARRAU

Testuak: Nerea Uranga / Zumaia

Larunbata da, arratsaldea, eta Zumaiaiko Aita Mari Arraun Elkartearen egoitzan bertan daude Ane Goenaga eta Ione Etxaniz azpeitiarrak. Euria ari du, gogoz gainera, eta biak arraun egitera doaz, entrenatzera, elkarreko batelari baitira. Autoz etorri dira Azpeititik, biak ere kirol poltsekin. Uxoia zumaiaarrak eta hirurek azkeneko bi asteetako errepasoari ekin diote. Bi aste baitira bateleko denboraldia amaitu dutela, eta harrezkero atsedenean egon dira, entrenamenduak utzita, estropadak bukatu ondoren. "Lo eta lo besterik ez dut egin egun hauetan, neka-neka eginda bukatu bainuen denboraldia", dio Ionek. Uxoia zumaiaarrak, berriz, medikura ere jo omen du. "Burukomin izugarriak izan ditut; medikuak esan dit entrenamenduak bat-batean utzi izanak eragindakoak izango direla".

Egoitzako beheko solairua traineruz, batelez beteta dago, eta guztiak dira gorriak, bat izan ezik; normala, Zumaian bai-kaude. Aita Mari traineruetako entrenatzaile batzuk eta arraunlari anitz dabilta, harat eta honat, traineru artean.

Denboraldia bukatu dute neskek, baina taldea batelean arraun egiteko geldituta dago aspaldiko partez. Aurten nesken bi talde besterik ez dira jardun Aita Mariren koloreekin. Bata gaztetxoena eta bestea senior mailakoa. Azken talde hori sei neskek osatzen dute: Ane Goenaga eta Ione Etxaniz azpeitiarrek beraiek, Uxoia Gainza eta Oihana Agirre zumaiaarrek, eta Agurtzane Berasategi eta Miren Azkue azkoitiarrek. Bat ordezkoa da.

Ione patroia da. Untziko arinena izan ohi da patroia, eta honen lana batelarietako agintuak ematea, batela zuzen eramatea eta zabiogak hartzea da. "Eta, gainontzean, garrasika ibiltzea", Ionek dioenez. Erritmoan batasun bat emateko garrasi berezia dute patroiek, eta, gainera, denek desberdina. "Nik 'tau-tau' esan ohi dut; lehenarekin arrauna sartzeko batelarietako eta bigarrenarekin ateratzeko". Anek dioenez "kantari-kantari ibiltzen da Ione. Gainera, meritu handia du, bi hilabetean ikasi zuen eta patroia izan".

Zumaiaiko Aita Mari nesken taldean barrualdekoak gehiago dira kostaldekoak ▶▶

Lehorrekoak baina arraunlariak. Ione Etxaniz eta Ane Goenaga herrikideak aurten Zumaian aritu dira. Ane Goenaga eta Ione Etxaniz Parrantako lagunarteko erronka bati aurre egin behar izan zuten arraunean



NLARI PAREA

Ane
patelari.
ondoren





Ane eta lone, Zumaiara heltzen, kirol poltsekin.



Batelean eserlekuak eta hanka lekuak neurritara jartzen uretara atera baino lehen.



“Azpeititik, koadrilatik lau neska joan ginen. Parrandatik arraunlari izatera pasatu ginen”

Ane Goenaga



“Bateletik, jendea goian, ikuslegoaren artean animatzen ikusteak asko motibatzen du, asko da”

Ione Etxaniz

» baino. Nolatan? Parrandako arrazoiak denak ere. “Arraunlari batzuk ezagutzen genituen, eta jaietan topo egiten genuenean elkarri adarra jotzen aritzen ginen. ‘Baietz arraunean hasi’ eta... lazko Sanizazioetan hitzordua jarri genuen arraunean saio bat egiteko. Irailaren 3rako geratu ginen, Zumaian. Lagunek uste zuten ez ginela azalduko, baina gu hantxe agertu. Batela atera, arraunak hartu eta lehenengo proba egin genuen. Azpeititik, koadrilatik lau neska joan ginen. Beraz, parrandatik arraunlari izatera pasatu ginen”, dio Anek.

Hasiera haietan Stephane Urbieta zuten patroia —gaur egun entrenatzailea dute—, eta lone eta Ane arraunean aritzen ziren. Baina hauek ez dira batelari izatea zer den jakin duten azpeitiar bakarrak; izan ere, biek batera beste sei neska azpeitiar ere aritu ziren denboraldiaren hasieran. “Lau lagun hasi ginen, eta gero taldea osatzeko jendea behar eta gehiagok ere probatu zuten; gero utzi egin zioten, ordea. Bartzuek probatu besterik ez zuten egin, eta beste bik entrenamenduak asteburuetan egiten hasi ginen arte jarraitu zuten”, kontatzen du lonek.

Batelari hasteko lehen pausoak parrandako kontuak izan baziren ere, behin arraunaren munduan sartzen joan diren heinean, parranda gutxi egin dute biek. “Denboraldian festa gutxi egin dugu. Bakarren bat egin badugu, txikia, oso txikia izan da”, diote.

Arraunean probatu eta jarraitzea erabaki zuten azpeitiar gazteok. Entrenamenduak, lanetik atera eta gero izaten zituzten, 20:30ak aldera. “Lanetik atera, autoa hartu eta Zumaiara etortzen ginen, bi ordu eta erdiz entrenatzeko. Autoa hartu eta etxera

bueltan, 23:00ak aldean. Iritsi, afaldu eta ohera”.

Hasieran, astean bitan gimnasioan eta beste bitan uretan entrenatzen ziren. “Batelarekin uretara ateratzeko taldea osatzen ez ginenean, edota oso eguraldi txarra egiten zuenean, egoitzako ur putzuan aritzen ginen”. Baina hor arraunean aritzea ez dute gustuko, “aspergarria baita, nekagarria eta, gainera, eskuak txikitu egiten dira”. Gimnasioa ere ur kirolen eraikinean dago, eta hasieran han latsa ederrak pasatzen zituztela dute gogoan. “Han pisuak egiten genituen, eta izugarri gogorra zen. Hasieran burdina pisurik gabe hartu eta bi eskuekin batera altxatuz entrenatzen ginen, mutilez inguratuta; eta mutilak, bien bitartean, burdinaren alde banatan izugarritzko pisua hartuta”.

ESTROPADAK. Irailean ekin arraunari eta otsailean hasi zen estropaden denboraldia, eta sasoi horretan astean lautan entrenatzen ziren, eta asteburuan estropada. “Estropada hurrengo eguna jai izaten genuen, atsedena hartzeko”. Garai horretan bi neska batelariok jana eta loak ere kontuan izan dituzte. “Estropada aurretik jatekoa-eta zaindu egiten genuen, estropada baino hiru ordu lehenago gosalduz edo bazkalduz. Gainontzean, dietarik-eta ez dugu egin. Gero, estropada bezperan, gutxienez zortzi ordu lo egin beharra izaten genuen”.

Lehenengo estropada Orion izan zuten. “Gure helburua Orion estropada bukatu ahal izatea zen. Oso urduri joan ginen”. Erlojuaren kontrako estropada zuten han, eta minutuko tartean banan-banan batel bat atera eta denbora onena egiten due-nak irabazten du proba honetan. “Erlo-



Ane, taldekide batekin batela egoitzaetik uretara garraiatzen ari da, entrenamendua hasteko.



Aita Mari bateletako taldekide guztiak batelean, prest.

jupekoan ez dugu jakiten zenbagarren postuan goazen. Eta Orion, bukatu, bukatu genuen estropada. Ikusleen artean lagunak genituen, gu animatzera joanak, eta haiek komentatzen ziguten beraien ustez aurreneko postuan egin genuela. Eta epaileak sailkapena jakinarazi zuenean, guk irabazi genuela esan ziguten. Lehenengo estropada eta lehen postuan egin genuen. Denak benetan emozionatuta gelditu ginen”, diote.

Denboraldi guztian bost batel ibili dira lehian: Aita Mari, Fortuna (Donostia), Illunbe (Trintxerpe), Hernani eta Zarautz. Denboraldiaren hasieran Ligan aritu ziren. Eta bukaeran Gipuzkoako eta Euskal Herriko Txapelketa izan dituzte; Gipuzkoakoan hirugarren bukatu dute Aita Mari-koek, Euskal Herrikoan laugarren.

JARRAITZAILEAK. Estropadetan eta entrenamenduetan animorik ez dute falta izan. Lagunak, etxeokak eta mutilak ere jarraitzaile izan dituzte denboraldi guztian. Ioneren hitzetan, “bateletik, jendea goian, ikuslegoaren artean animatzen ikusteak asko motibatzen du, eta hori asko da”.

Aita Mari Arraun Elkartearen ere “era berezian” tratatzen dituztela diote neskek. “Aita Mari-ko arraunlariek, entrenatzaileek eta denek tratatu berezia eman digute, laguntza

Entrenatzailea gustura

• Stéphane Urbietta zumaiarra da, eta Aita Mari Arraun Elkartearen arraunlaria da. Baita entrenatzailea ere. Hain zuzen, denboraldi honetan Urbietta izan dute entrenatzaile lone Etxanizek eta Ane Goenagak. “Denboraldi polita” egin dutela dio entrenatzaileak neskegatik. Haren ustez, bi azpeitiarren taldea hobeto ibili da erlojupeko probetan parez parekoetan baino: “Izan ere, esperientziak erakusten du parez pare ibiltzen. Eta entrenamenduetan bakarrik ibili dira; ondoan beste batel bat ibili balute, ohitura handiagoa izango lukete eta lagundu egingo lieke”.

Ziaboga onena

• Ionek sari bat lortu du lehen urtean, Gipuzkoako Txapelketan zيابoga onenaren saria jaso zuelako. “Ziabogan batelari denek dute beren lana egiteko. Gero nik aginduak eman eta zيابoga txukun hartzen saiatu behar dut”.

faltarik ez dugu izan. Izugarri lagundu gaituzte. Lehenengo estropada irabazi genuenean, Zumaiara itzuli eta denak zain genituen zoriontzeko”.

Denboraldia apirillean bukatu zuten. Orain oporretan daude, arraunean egin gabe. Baina, kostaldetik, itsasertzetik pasatzean uretara joaten zaie begirada. Traineruren bateko arraunen mugimenduen atzetik. “Orain gehiago erreparatzen gara, nola ari diren arraunean, zer mugimendu egiten dituzten”, diote. Baina datorren denboraldian berriro arraunari ekingo dioten galdetu eta ez dute erantzun ziurrik eman nahi. “Ez dakigu oraindik zer egingo dugun, jarraituko dugun ala ez. Nahiko gogorra da. Entrenamenduak, lanetik atera eta autoa hartu eta Zumaiara, asteburuak ere horretarako behar dituzu, dena eman behar duzu eta norberarentzako ez da denborarik gelditzen. Dena den, udan jai dugu. Mutilek, ordea, urte osoan hilabete bakarra izaten dute jai”, diote. “Gu izan garen parrandazeleekin eta arraunean hasi ginen bada...”. Agian, aurtengo Saninazioetan, arraunlari lagunek beste erronka bat jarri eta bigarren denboraldiari ekingo diote, Urola ibaiak urak itsasoratzen dituen herrian, Zumaian. Bi azpeitiarrak batelean itsasoratzen diren leku berean. •

TABERNA

LOKOTX

Telfnoa.: 943 15108
Enparantza Nagusi

PILDAIN
inmobiliaria

Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es

ODRIOZOLA ARDOAK

Julio Urquijo, 18
Tfnoa.: 850 011
AZKOITIA

Iñaki Azpiazu, 5
Tfnoa.: 15 13 16
AZPEITIA

AZKOITIA

ERLOJU KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

AZPEITARRREN EZAUGARRIAK ALETZEN



Bertan sortu eta bertan bizi garenok askotan ez gara gure gauza bereziekin harritzen eta konturatzen. Mundua beti horrelakoxea izan dela pentsatzen dugu, eta ondo dagoela. Horregatik, niri asko gustatzen zait kanpotik datorren jendearekin hitz egitea, ea hemengo bizitza nola ikusten duten jakin nahian. Eta dagoeneko bildu dut halako sorta bat.

Azpeitiarrak motz samarrak ote diren esaten duenik badago. Larunbat iluntzean ez, noski. Or-duan, zurrutarekin poztuta edota pilulekin piztuta, denak dira hizlari eta sinpatiko, mutilak batez ere. Gehiegi ere bai. Hurrengo egunean kontuak. Arra-tsaldeko bostetan, egun argitan, ezagutzen da pertsona, eta kanpoko nire lagun bat baino gehiago geratu da harrituta, larunbatean sekulako *roiloa* sartu eta egundoko konfiantza eman zion hura egun argiz ikusi eta bere ondotik agurrik egin gabe ihesi joaten ikusita. Edo naturaltasuna falta dute azpeitiarrek, edo larunbatetakoa naturaltasun faltsu bat besterik ez da.

Azpeitia igoal izango da Euskal Herrian korrikalaririk gehien dituen herria. Hori bai, *footing* egiten dute, ez korrika, edo lasterka, edo *antxintxike*. Eta horrekin batera, beste kirol batzuk egiten dira: pilotan, bizikletan, igerian, pesak... Hemen kirol dendak suerteko daude. Kaitoren telebista adin guztietako korrikalariz betea ageri da egunero. Hemen adina kopa, domina eta diploma ez dira ezta olinpiadetan ere banatuko. Neuk ere badut domina bat, alferrontzi galanta izanik! Hemen, kirolik egiten ez baduzu, arraro begiratzen dizute. Lanean zortzi edo hamar ordu pasatuta, jendea korrikara ateratzen da; tripa kuadro gainera botata, potoloena ere bizikletan joaten da Mandubiaraino. Izerdia botatzea da, nola edo hala, hemengo egin-beharra, gero kubatak lasaiago edateko, elkarteetan lasaiago afaltzeko, txuletak, rabak, kruasanak patxadan irenste-ko.

Horrekin batera, Azpeitian etxe bakoitze-ko bi lagun gutxienez mendira doaz astero. Baina hemen mendira joatea ez da broma: kontua ez da paisajea ikustea, natura senti-

tzea, arbola azpian irakurtzea; kontua lehenbailehen tontorrera iristea da, hainbat minuturen barruan, oraindik ere *sandios* zarela demostratzeko zeure buruari. Mendia, azpeitiarrentzat, ez da mendia. Mendia da nork bere buruarekin daukan lehia irabazteko bidea; mendia zahartzaroaren kontrako erantzun bat ematen duen erraldoia da.

Nik uste hemen kirolarekin dagoen harremana ez dela batere sanoa, kirola egitea munduko gauzarik sanoenetzat daukagun arren. Honek eguraldi ederreko igandeetan Amsterdam ematen du: dena zikloturistaz beteak agertzen dira kaminoak, orain inor ez baitoa inora bizikletan, orain zikloturismoa egiten da. Baina inor ezin duzu ezagutu: denak jantzirik koloretsuenekin doaz, betaurreko beltz diseinuzkoekin. Hemen, makalenak ere Cipolliniren antza dauka janzkeran. Hemen, kirola egiteaz aparte itxura ere asko zaintzen baita. Horrek niri ustel tankera gehiago sortzen dit, tankera sanoa baino.

Kiroltarako hobeto janzten da azpeitiarra larunbaterako baino. Kanpoko nire neska lagun batzuek diote hemen adina alkandora koadratu ez dutela ikusi ezta Montanan ere.

Aizkolariaren alkandorak deitzen diren horiek, karratu gorri, urdin, berde, txuri, beltz eta nahasketa okerragoekin beteak. Neska horiek diote azpeitiarrak oso builosoak direla txispatutakoan. Oihu egiten dute, besoak zabalzten dituzte, arbola bati heldu behar baliote bezala, elkar bizkarra puskatzeko moduko kolpez agurtzen dute, eta neskak bizkarrean eramango lituzketen bildotsak dira haientzat.


Hona azpeitiarren izaera ezagutzeko bali dezaketenean ale batzuk.



HILEKO GALDERA. Zaharrak Aitonengan, umeak Zapo Txokon, gazteak tabernetan; adin bakoitza bere 'ghetto'-an itxi behar al da?

Uztarriaren eskeintze katxarrue

Imanol Eliasen biografia uztailaren 13an aurkeztuko du Uztarriak



- **AURKEZPENA:** Uztailaren 13an. 12:00etan.
- **EGILEA:** Mailo Oiarzabal
- **ORRIALDEAK:** 160 inguru.
- **ARGAZKIAK:** 60 inguru.
- **EZAUGARRIAK:** Imanol Eliasen bizipenak, anekdotak, lagunen iritziak... jasoko dira.
- **SALNEURRIA:** Zazpi euro.
- **UZTARRIAKO BAZKIDEEK:** Doan jasoko dute, dagokien tokian.
- **ARGITARATZAILEA:** Uztarria.

albiste txikiyek

Uztarriako elastikoak salgai

Uztarriako elastikoak salgai daude herriko hainbat tabernatan (Etxe Zurin, Urtzin eta Lagun Onak-en) eta Uztarriako lokalean. 12 euroko salneurria dute (2.000 pezeta). Hiru koloretan dira uztarria.com leloa dar maten elastikoak: morrea, urdin argia eta laranja. Laster webgunetik ere elastikoak erosteko aukera izango da.

Aldundian diru laguntzak eskatu dira

Orotara, 10.818,22 euro eskatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundian Uztarria Kultur Koordinadorak 2002ko komunikazio proiektua laguntzeko: aldizkaria, liburuxkak eta www.uztarria.com.

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerria (Azpeitia).
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Web orria:
www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.800 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

Azpeitiarrei buruzko beste hiru biografiak



• **JOXE TAKOLO (agortua).** 2001eko maiatzean. Egilea: Enekoitz Esnaola.



• **ANGEL OTAEGI (agortua).** 2001eko irailean. Liburuaren egilea: Iban Arregi.



• **PATXI ALTUNA.** 2002 bukaeran aurkeztuko da. Liburuaren egilea: Josune Etxeberria.

563 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21,04 euro (3.500 pezeta) / Bestela harpidedun izan zaitezke, doan (kontu korrontearena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK: _____

HELBIDEA: _____

HERRIA: _____

KODE POSTALA: _____

TELEFONOA(K): _____

POSTA ELEKTRONIKOA: _____

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak): _____

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2.a ezkerria • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com



Loiolako Santutegia eta Egibar baserria arteko lurzatia finkatu egin da Plan Berezia egiteko oinarriak jarriz.

LOIOLAN ALDAKETA

Loiolako Santutegia eta Egibar baserria arteko 24. lur zatiaren arauak onartu dira; orain Plan Berezi bat egin beharko da

Iterea Uranga

Behin betiko, Loiolako Santutegitik Egibar baserria arteko lur zatiaren (24. lur eremua) Hiri Antolamenduko Arauen Aldaketa onartzea erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak otsailaren 19ko batzarraldian. Uztarriak proiektua lortzerik izan du, eta bertan, Loiolako Santutegiaren

inguruan hainbat aldaketa aurreikusten dira. Hala nola, Loiolako Santutegia eta egoitza berria finkatuko dira. Katalangoa baserria, aldiz, antolaketaz kanpo geldituko litzateke, eta baserria botatzea aurreikusten da, berdeguneak zabaltzeko. Loiolatxo, jostundegia eta honi atxikirik dagoen eraikina ere —oroigarriak saltzen diren denda dagoena— antolamenduz kanpo jotzen dira, eta hauek bo-

ta eta orduan hutsik geldituko litzatekeen lur sailean aparkaleku bat egitea aurreikusten da. Urola ibaian zubi berri bat eginenez, santutegiaren atzealdeko aparkalekura sarbide berri bat egokitzea ere jasotzen da erabakian. Eta, errepide sareari dagokionez, Azkoititik Azpeitirako errepidean glorietatik bat egitea adierazten da. Loiolatik Egibar baserriraino berdegunea luzatu eta bidea oinezkoentzat

egokitzea eta museoa handitzeko aukera biltzen ditu erabakiak, besteak beste.

“TURISMORA ZUZENDU”.

Antolamendu honen helburu nagusia inguru hori “turismora zuzentzea” da. Aldundiko erabakian adierazten denez, asmoa “Loiolako Santutegia eta bere ingurunea behin betiko egituratzea da, eraikinaren monumentu izaerak eskatzen

baitek

azpeitiko euskara elkarteak

ESALDIA

“Errespetuaren
lehen seinalea
da bertako
hizkuntza
errespetatzea”

◆ Egoitza: Julian Elorza Hiribidea
4, 2.a ezkerre

◆ Telefonoa - faxa: 943 15 03 58

◆ E-maila: baite@uztarria.com

Azpeitiko euskalgintzaren aldizkaria 2002ko ekaina II. urtea 3. zenbakia

Baitek hitzaldi sorta batekin ekin dio kontzientziazioari

Uda aurretik bi hitzaldi antolatu ditu elkarteak, eta uda ondoren beste hainbat izango dira; beste ekimen batzuk ere bai



XAMARREN HITZALDIA IZAN DA JADANIK ◆ Juan Carlos Etxegoien *Xamar* idazle nafarraren hitzaldiak zabaldu du, aste honetan (hilaren 5ean), Baiteren ekimen sorta. Hitzaldia Enparanen egin zen, eta euskararen egoera izan zuen ardatz Xamarrek.

ORAIN DELA hilabete bazkideen lehen batzarrean erabaki bezala, Baite Azpeitiko Euskara Elkarteak kontzientziazio kanpainari ekitea erabaki du, komunikazioa lantzearekin batera –harrezkero atera den bigarren zenbakia da hau – eta, hala, uda aurretik bi hitzaldi antolatu ditu. Bat aste honetan bertan izan da, asteazkenean, eta Juan Carlos Etxegoien *Xamar* arituzen hizketan. Bigarren hitzaldia Kike Amonarrizek eta Antton Olariagak eskainiko dute, uztailaren 17an.

Baiteren ustez, garrantzitsua da Azpeitian euskararekiko kontzientzia sortzen edota zabaltzen joatea, herria euskalduna izan arren, euskararekiko atxikimendua ez baita oso handia, hitz egiterakoan salbu.

Elkartea iazko otsailean sortu zenean, bere helburuen artean jarri zituen, besteak beste, “herrian euskara eta euskaltzetasuna bultzatzea”, »

JOSUNE ARANGUREN ETA MARIA JESUS AGIRRE, ZOKKETAKO IRABAZLEAK

Aurrera doa Baiteren bazkideen arteko zozketa, eta Josune Aranguren eta Maria Jesus Agirre izan dira laugarren eta bosgarren irabazleak. Arangurenek Mikel Aranburu Realeko jokalaria elastikoa irabazi zuen eta Agirrek Eklipse kultur dendako liburu sorta bat. Hamabostean behin egingen da zozketa, eta irabazlearen izena segituan jartzen da www.uztarrria.com helbidean.



Mikel Aranburu eta Eklipse kultur denda, Baiteren laguntzaileak.



EUSKALGINTZAKO ERAKUNDEEK ZABALIK DITUZTE BAITEKO ATEAK

Orain hilabete pasatxo egin zuen Baite Euskara Elkarateak bazkideen lehen batzarra, eta egun hauek dira euskalgintzatik Baiten parte hartzen ari diren erakundeak: Karmelo Etxegarai Azpeitiko Ikastola, Urola Ikastola, Ikasberri Azpeitiko Ikastola, Uztarrria Kultur Koordinadora, AEK, EHE eta Erriarraitz Bertsozale Elkartea. Euskalgintzako beste erakundeek zabalik dituzte Baiteko ateak.



AMONARRIZ ETA OLARIAGA UZTAILAREN 17-AN ♦ Kike Amonarriz soziolinguistak (argazkian) eta Antton Olariaga marrazkilariak uztailaren 17an hitzaldia eskainiko dute, 20:00etan, Aitonena aretoan. *Euskaraz dibertitzeko manierak* izango da bi haien gaia, eta gaur egun euskaldun gazteen hizkera traketsaz ere mintzatuko dira.

» "herrian euskaraz bizi ahal izateko lan egitea", "herrian euskarazko kultur espresioak antolatzea eta bultzatzea" eta "euskararekiko dugun jarraz hausnarketa autokritikoa bideratzea". Azpeitian euskalgintzako erakunde bakoitzak orain arte bere kasa jardundu, eta, beraz, ez da modu koordinatuan eta bateratuan lan egin ildo horretan. Horregatik sortu zen Baite, eta aurretik aipaturiko helburu haien bidean antolatu du kontzientziazio kanpaina hau.

Uda ondoren ere bai

Ekimenek uda ostean ere jarraituko dute. Baitek dagoneko zerrenda egin dauka, eta oraindik egunak eta tokiak zehazteke dauden arren, litekeena da Inigo Aranbarri idazlea bere azken liburuaz mintzatzea (*Hitzak eta giltzak*); euskara eta ideologiaz ariko da. Koldo Zuazo euskaltzaina ere etorriko da euskalkiez hitz egitera.

Haurrei eta gaztetxoei begirako ekitaldirik edo ekimenik ere antolatuko du Baitek. Batetik, *Johanes*, *Bargotako azitia* ikuskizuna antolatuko da, euskal mitologiaren ingurukoa hain zuzen. Eta begirale-

Elkartearen zozketa, lau sari ederrekin

BAITEK aurten ere zozketa edo errifa egingo du. Hain zuzen, jarri du jadanik martxan zozketa; Santiyogunez egingo da. Aurten iaz baino sari gehiago eta ederragoak jarri ditu. Lau sari egongo dira; hauek: Erratzun (Baztan, Nafarroa) nekazal turismo batean asteburua bi lagunentzat, Zestoako Bainuetxean ur zirkuitua eta masajea bi lagunentzat, *Egunkaria*-ko urtebeteko harpidetza, eta Larrañaga jatetxean (Urrestilla) afari ederra bi lagunentzat. Txartel bakoitzak bi zenbaki izango ditu aurten.

ekin *Euskaraz jolas* programa hitzartu nahi da, haiek gero gaztetxoekin praktika dezaaten, gaztetxoek jolasak euskaraz egin ditzaten, abestiak euskaraz kantatu... ♦

Herri Irratia
RADIO POPULAR

KIÑU
BIDEO LANAK

Agustin Lizardde

Loiolabide kalea, 17
Tel.: 81 32 78 / 686-56644

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura
KAITO TELEBISTA



81 53 35

uztarrria.com
amplifikatzaile

...zuk zergatik ez? Eman lasai albistea, erantzuna, botoa, iritzia... Hartu parte, erraza da

**EUSKARAREN
TELEFONO ZENBAKIAK**

- ◆ **Kontsailua:** 943 - 59 12 00
- ◆ **AEK:** 943 - 15 10 89
- ◆ **Baite:** 943 - 15 03 58
- ◆ **ENE:** 943 - 15 10 89
- ◆ **Uztarrila:** 943 - 15 03 58
- ◆ **Udal Euskara Patronatoa:** 943 - 81 19 47
- ◆ **Egunkaria:** 943 - 30 02 22
- ◆ **Lolola Irratia:** 943 - 81 44 58
- ◆ **Arrato Irratia:** 943 - 81 26 32
- ◆ **Euskadi Irratia:** 943 - 01 23 00
- ◆ **Topagunea:** 943 - 37 69 33

BAITE EUSKARA ELKARTEAREN ERESERKIA

Azpeitiyen badao euskera elkartie asko jakinen ziri, alperren kaltie. Hau da albistie euskera elkartie

Luzeako izengo da Baiteren premiye. Nahastu eiten die ixkue ta bejiye. Hori da egjiye! Baiteren premiye.

“Ekarri zak” neskari esan eta lasai. Ez jakiñien baiñe ar bihurtuez ai! Neska arrak nunahi ni ez nago lasai!

To eta no ite zeben Antton ta Garbiñek. Biyek e bazekiben nola zeiden iñek. Marka desberdiñek Antton ta Garbiñek.

Lagun batek ozenki! beste bati diyo: “Ez dizut ondo ikusi, portaletik jiyo”. “Ze ikusi nahi diyo?” beste batek diyo.

Nahiz euskerarekin duen satisfaziye azpeitiarrak erdera du lan soziyue. Ezta seriyue satisfaziye.

Euskerie indertzeko jarri deu neurriye: egunero ekin da ez izan nagije. Baina ezinek dje Baite ta Azpeitiye. Baite ta Azpeitiye jarri deu neurriye.

Ereserkia izan nahiko luke-enak, dei dezala 943 15 03 58ra, eta CDA jasoko du, euro baten truke.



Ipurbeltz ◆ Haurrentzat
◆ Hilabetekaria ◆ 36 orrialde
◆ Koloretan ◆ 943 21 83 00
◆ ipurbeltz@erein.com



Gaztetxulo ◆ Gazteentzat
◆ Hilabetekaria ◆ 48 orrialde
◆ Koloretan ◆ 943 46 18 83
◆ harpidetza@bagera.net



Nabarra ◆ Estandarra
◆ Hilabetekaria ◆ 52 orrialde
◆ Koloretan ◆ 948 22 71 25
◆ nabarra@nabarrera.com



Argia ◆ Estandarra
◆ Astekaria ◆ 60 orrialde
◆ Koloretan ◆ 943 37 15 45
◆ kazeta@argia.com



Elhuyar ◆ Zientzia eta teknika ◆ Hilabetekaria
◆ 66 orrialde ◆ 943 36 30 40
◆ elhuyar@elhuyar.com

Azpeitian euskarazko irakurle gutxi

Aukera ugaria den arren, kontsumitzaile eskasak gara



Egunkaria ◆ Estandarra
◆ 56 orrialde eta astean 8 gehigarri ◆ 943 30 02 22
◆ harpidetza@egunkaria.com



JAKiN 127
Euskal kultura 2001
Jakin ◆ Saiakera
◆ Bi-hilabetekaria ◆ 134 orrialde ◆ 943 21 80 92
◆ jakin@jakin.com



Herria ◆ Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako berri batik bat
◆ Astekaria ◆ Zortzi orrialde

IZAN ZEN Euskal Herrian -euskaraz gaur baino gehiago hitz egiten zen garaian beharbada- euskarazko irakurleak aurkitzea erraza ez zena; eta hainbat jakintza gaitan trebatutako euskaldun jakintsurik ere ez zen garaia izan ziren. Gaur egun, zorionez, ia alor guztietan dago jende euskaldun prestua

eta langilea. Euskaraz ere, ondorioz, batek izan ditzaketen zaletasun gehientsuenak euskaraz asetzeko beste badao, eta kalitatekoa. Euskaraz badao zer irakurria! Beraz, aitzakiak bukatu dira. Baina, zoritxarrez, euskarazko irakurle gutxi da Euskal Herrian, eta horretan Azpeitia ez da salbuespena, nahiz eta

gurean biztanleriaren %87k badakien euskaraz (11.500 lagun inguruk; bada zerbait!) eta haietatik ia guztiek duten euskaraz hitz egiteko joera. Ez, ordea, euskaraz irakurtzeko joera. Esan bezala, hainbat argitalpen daude euskaraz gaur egun. Goian ageri direnak dira haietako batzuk, garran-

tzitsuenetakoak, eta Baitek jardun du batzuetara deika eta Azpeitian ea zenbat harpidedun edo erosle dituzten galdezka, baina gehienek nahiago izan dute kopurua ez ematea, "jendea gehiago ez desanimatzearren", ardura-dun batek zioen bezala. Noiz izango ote gara euskaltzale praktikanteak? ◆

“Arazo nagusi eta bakarra erdaldun elebakarrak dira, erdara inposatzen digutelako”

(...) ♦ **Liburuan diozu, besteak beste, hizkuntza bat ez dela galtzen dakitenek hitz egiten ez dutelako bakarrik; hitz egiteko jartzen diren traben erruz baizik.**

Joxan Artzek, esaldi hori egin zuenean, hemengo euskaltzaleak pixka bat pizteko egin zuen;

eta zentzu handi batean arrazoi zuen, euskaldunon artean ere askotan erdaraz egiten baita. Baina arazo nagusia ez da Artzek aipatzen zuena, baizik eta erdaldunek inposatzen digutela erdara; arazo nagusi eta bakarra erdaldun elebakarrak dira. Gu ez

gara problema: hori bakarrik falta zaigu, azkenean euskaldunoi errua botatzea.

♦ **Eta nola eman dakiokete buelta elebakar horiek inposatzen diguten egoerari?**

Lehenik eta behin, hizkuntzaren ezagutza bultzatu behar da; hizkuntza ezagutzen ez bada, jai daukagu. Horregatik diot erdaldun elebakar horiek direla euskararen minbizia. Beraz, euskararen irakaskuntza bultzatu behar

da, elebakarrak elebidun egiteko. Baina, horrez gain, gune euskaldunak sortu behar dira. Izan daiteke geografikoki, herri edo eskualde elebakarrak sortuz. Bestetik, gune funtzionalak ere sortu behar dira. Adibidez, unibertsitatea. Izan ere, unibertsitatean denok elkarrekin egotea suizidio bat da; bultzatu behar da euskaraz ibiliko den unibertsitate bat; izan daiteke bestearen ondoan, baina nahastu gabe. (...)

EUSKARARI SO

EUSKALTEL.

Oso gaizki daude Euskaltelen euskararen kableak; izan ere, orain hiru bat aste karre-
ra guztietan bere orrialde bat jarri zuen, herrian zuntz optikoko kablearen instalazioa egin behar duela eta ea etxepearen baimena baduen, baina orrialdea espainol hutsean zegoen idatzia. Larrial; are gehiago Euskal Herriko enpresa denean Euskaltel.

euskararen eskubideen urraketaari aurre egiteko Behatokiaren telefonoa: 902 19 43 32

☎ Euskaltel

ESTIMADO VECINO DE C/ [REDACTED]

Tal y como habrá podido comprobar, EUSKALTEL está realizando las obras necesarias en Azkoitia, para que sus habitantes puedan disponer de la última tecnología en telecomunicaciones, que es la FIBRA ÓPTICA. En el mes de JUNIO, van a comenzar las mismas obras aquí, en AZPEITIA.

Desearíamos realizar una reunión en su comunidad, con el fin de obtener la autorización necesaria para la instalación GRATUITA y SIN COMPROMISO, de la infraestructura de cable de fibra óptica, para que en un futuro, cualquiera de los vecinos que quisieran abonarse a los servicios de cable que hoy por hoy oferta EUSKALTEL (Teléfono, Televisión e Internet), tuvieran la disponibilidad de hacerlo.

HITZ ETA PITZ

“Alderdi, sindikatu, gizarte eragile... abertzaleek euskara lehentasuneko gaitzat hartzen dute edo beharrezkotasuna ez du lortuko euskarak”

(JOXE LEON OTAÑO, AEK-ko koordinatzailea)



“Komunitateak erabateko subiranotasuna ez badu lortzen, bere hizkuntza arriskuan egongo da beti”

(AURELI ARGEMI, Gutxiengo etniko eta nazionalen Nazioarteko Gune burua)

AZPEITIAN LAN BILA, ESPAINOLEZ.

Badirudi Azpeitian lana espainolez eskatu beharra dagoela. Hala uste du, behintzat, kalean zenbait ohar jarri dituen mutiak. Besteak beste, umeak eta zaharrak zaintzeko eskaini da... espainolarekin arazorik handienak dituztenak zaintzeko.

Chica se ofrece para todo tipo de trabajos.

Cuidado de niños, ancianos, Servicio doméstico... etc. con experiencia e informes.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE BAITE-N ♦ Urtean sei euro besterik ez


- ♦ Izen-abizenak:.....
- ♦ Helbidea:.....
- ♦ Herria:.....
- ♦ Telefono zenbakia:.....
- ♦ E-maila:.....
- ♦ Kontu korronteko 20 zenbaki:.....

♦ Zure datuak helarazteko aukerak:

- ♦ 943 15 03 58 telefonoa / faxa
- ♦ baite@uztarria.com
- ♦ Baite, 202 posta kutxa, Azpeitia
- ♦ Ikastetxeetako eta tabernatako kaxak

♦ Baiten bazkide egiteko beste aukera:

Honako zenbaki honetan sartu sei euro: 3035 0020 57 0200048936 (Euskadiko Kutxa)



HANDIAK

duen moduan; eta santutegia edonongo turismo erlijioso eta kulturala hartzera ematearekin batera, Azpeitiko zein inguruko herrietako biztanleriaren hedapenerako erabiltzea”.

Foru Aldundiko Gurutze Arrieta hirigintza departamentuko langileak Uztariari esan dienez, “lur eremu honetako Arauen Aldaketa onartuta geldituko da behin betiko, eta, bertan adierazten den bezala lur eremu honi dagokion Plan Berezia bakarbat egin beharko da. Plan Berezia onartzeko arauen aldaketaren prozedura berbera jarraitu beharko da”. Loiolako

Santutegiaren inguruan aurreikusten diren aldaketetan ez da zehazten aurrekontua, ezta diru iturria ere. Beraz, Plan Berezian jaso beharko dira zehaztasun hauek. Gurutze Arrieta dioenez, “Plan Berezia egiteko ez da epe mugarik izaten”. Loiola auzoko biztanleek diotenez, urteetan entzun izan dute “zenbait baserri eta eraikin botako dituztela eta aldaketa handiak” egingo direla bertan, eta badirudi gauzatuko egingo dela hori.

UDALEAN. Gipuzkoako Foru Aldundiak gaiaren inguruan erabakia hartu aurretik, aurre-

Plan Berezia egiteko

● **24. Loiolako Santutegiko eremuan onartu diren aldaketak egin aurretik, lur zatiaren inguruko Plan Berezia egingo da. Hor jaso-ko dira aldaketak eta zehaztasunak. Dena den, Arauen Aldaketak emandako pausoak eman beharko dira Plan Berezia onartu aurretik. Udalean aztertu eta behin-behingo onartu ondoren, jendaurrean erakusgai egongo da. Alegaziorik ez bada jasotzen, orduan onartu beharko du Udalak. Beraz, aldaketak egiterako denbora pasatuko da.**

neko pausoak Azpeitiko Udalean eman ziren. Iazko maiatzeko eta ekaineko udal batzarretan asmoari hasierako onarpena eman zitzaion, eta jendaurrean erakusgai egon ondoren, inolako alegaziorik ez zen jaso. Iazko urriaren 2ko udalbatza behin-behineko onartu zen, eta, ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundira bidali zen espedientea, bertan behin betiko onartu ahal izateko. Eta onartu da dagoneko.

Udalak Loiolako 24. lur eremuaren inguruan sustatutako espedientearen helburua, berriaz, “lur eremu honen muga berriak jarri eta eremu honen barruan gelditzen den Egibar baserrian dagoen museoa handitzeko aukera izatea da”. Horretarako, Azpeitiko Udalean lur eremu haren erreserba handitzea ere aurreikusitua zen.

1. Katalangoa baserria bota

● Loiolako Santutegiaren lur zatiari, hau da 24. areari, dagokion hiri antolaketako arauen aldaketak, Katalangoa baserria antolaketaz kanpo aurreikusten du. Eta esaten du baserria bota egingo litzatekeela. Baserria antolaketaz kanpo gelditzearen arrazoia, parkeak edo berdeguneak zabaltzea da. Kasu horretan, Loiolako mendebaldean, berdegunea zabaltzea ja-

sozten da, modu horretara Urola ibaiaren ertzetik Katalangoa baserria bera, bere lurrak eta Jesusen Konpainiaren jabetza-koak hartuz.

Berdegunea zabaltzeko beste proposamen bat ere badago: gaur egun dagoen parkea Egibar baserriraino zabaldu ahal izateko, Biskiturri baserriko lurrak horretarako erabiltzea.



Katalangoa baserria.




Pare honetan egingo dute zubi berria, santutegi atzealdera joateko.

2. Urolan zubi berria

● Errepide nagusitik, hau da, Azpeititik Azkoitirako errepidetik, zubi berri bat eraikitzea aurreikusten du Loiolako Santutegiko 24 A.I.U. lur eremuaren hiri antolamenduko arauen aldaketak. Horrela, autoentzako santutegirako sarbide berri bat izango da. Zubi horrek santutegi atzealdeko zabalunerako sarbidea ahalbidetuko luke proposamenaren arabera, eta errepide nagusia eta Aldakaitz baserriaren eta Loiolako aterbe arteko zabalunea lotuko litzuke.

Zubi berria eraikiz, santutegiaren atzealdeko zabalunearen ondoko aparkamendurako sarbidegarritasuna eta lotune berria hornituko lirateke, arauen aldaketak jasotzen duenez; hain zuzen, Loiolan finkatu nahi diren hiru aparkalekuetako bat. Hala, santutegiaren atzealdetik autoentzako zubi berria eta lehendik dagoen Aldakaitzeko oinezkoentzako zubia leudeke.



3. Loiolatxo eta jostundegia bota

● Loiolatxo eraikina, jostundegia eta honi lotuta dagoen eraikina botatzea aurreikusten da Loiolako 24. A.U.I. arauen aldaketak. Eta hutsik geldituko litzatekeen lur sail horretan aparkalekuak egiteko asmoa dago.

Jostundegia urteetan hutsik dago, eta gaur egun zaharkituta, gainera. Baina Loiolatxon elkartea dago; Izarraizkoen eta

Loiolakoen elkarte. Gaur egun 87 bazkide ditu eta dagoeneko 25 urte dira elkartea bezala sortu zenetik. "Loiolatxo botako duten kontua aspalditik entzuten ari gara. Baina guri inortxo ere ez zaigu etorri horren berri ematera edota elkartea beste nonbaitera aldatzeko eskainiz. Egia esan, guk ez dakigu ezer kontu horri buruz", esan diote Uztarriari bazkide batzuek.



Jostundegia ezkerrean, Loiolatxo eskuinean.

4. Hiru aparkaleku berri

• Loiolan hiru aparkaleku finkatzen ditu Arauen Aldaketak. Batetik, santutegiaren atzealdeko zabalunearen ondokoa litzateke; horra sarbide berri bat egin nahi da, Urola ibaian zubi berria eginez. Bigarren aparkalekua, Gogartetxearen aurrean izango litzateke, gaur egun Loiolatxo, jostundegia eta honi atxikitako eraikina bota eta hutsik geldituko litzatekeen lursaile-

an. Eta hirugarren aparkalekua, Urolako Tren Geltokiaren ondoko zabalunean finkatuko litzateke.

Gaur egun hiru zabalune horiek aparkaleku funtzioa betetzen dute; hau da, autobusak edota autoak aparkatzeko erabiltzen dira. Loiolatxo aurrekoa eta geltoki ondokoa, ordea, ez daude aparkaleku bezala adierazita eta egokituta.



5. Glorieta berri bat

• Loiolako Santutegi inguruko errepide sistemaren zenbait elementu berriro egikaritzea ere aurreikusten da 24. lur eremuari dagokion arauen aldaketan. Era horretara, “bide sistemari dagokionean, santutegiaren inguruan berregituraketa sakona egitea” proposatzen da.

Eta jasotzen diren proposamenen artean, Loiolako hiribidean, Azpeititik Azkoitirako errepidea eta Santutegi erdiko errepidea elkartzen diren bidegurutzean, glorieta bat eraikiko litzatekeela adierazten da. Glorieta berri horren “zehaztasuna eta antolaketa” lur eremu honen inguruan egingo den Plan Bereziak zehaztuko ditu. Gaur egun, bidegurutze horrek Azpeititik Azkoitirako errepide nagusia, santutegiaren erdialdeko bidea, eta Garmenditik abiatu eta tren geltoki aurretik datorren errepidea elkartzen ditu, eta gune garrantzitsu bezain konplikatu da.

6. Museoa handitzeko aukera

• 24. lur eremuari dagokion Hirigintza Arau Partikularrak dioenez, Egibar base-ria —gaur egun Ingurumen Museoa dena— intereseko eraikin katalogatu bezala gorde beharko dela. Horren arabera, ustezko arkeologi gune bezala deklaratu beharko da Egibar. Eta gaineratzen denez, museoa zabaltzera bideratutako eraikin berriak egitea onartuko da, baina

lehenagoari egokituta, “harmonia gordez”. Horregatik, museoa zabaltzekotan kontuan izan beharreko lerroak hartuko lukeen gehieneko lur zatia, eraikuntzaren profila eta gehieneko altuera zehazten dira. Eta aurreikusiko litzatekeen eraikin berriaren erabilerak, “kultur ekipamenduekin lotutakoa” izan beharko lukeela ere adierazten da.



Katalangoa baserrikoek urteetan entzun dute eraikina botatzekoak direla; orain berriro entzun dute, Uztarrria horretaz galdezka joan zaienean, eta kezkatu daude

500 urtetik gora dauzkan baserriaren etorkizun beltza

Katalangoa baserriak historia luzea du, ez baita oraingotxe baserria. Bertara ezkondu eta 18 urte zituenek geroztik Azpeitian bizi den Kontxita Kortabarria antzuolarrak kontatzen duenez, jesuita batek behin zera aipatu omen zion: “Katalangoa baserria, Loiolako Basilika bera eraikitzen ari zirela ba omen zela, eta garai hartan enfermeria omen zela esan zidan jesuitak. Hortaz, 500 urtetik gora badituela esan dezakegu”. Loiolako Liburutegian ere halaxe diote: jesuitek diotenez, garai

“Garai batean bi leku eskaini zizkiguten etxe berri bat altxatzeko”

Kontxita Kortabarria
(Katalangoa baserrikoa)

hartako marrazkietan Katalangoa baserria agertzen omen da.

Eta orain botatzeko mehatxuan dago. Baina ez da lehenengo aldia hori entzuten dutena. Kontxita berak kontatzen duenez, 33 urte izango dira baserria botatzeko asmoen berri izan zutela. Geroxeago berriro izan zuten asmo horren berri, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ingeniariaren bisita ere eduki zuten. “Garai hartan bi leku eskaini zizkiguten etxe berri bat altxatzeko: bata San Pedrokoa dagoen lekuan eta bestea gaur egun Xanadu kafetegia-eta dauden etxebizitza horien lekuan, baina halaxe gelditu ziren orduko kontuak”.

Orain, Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu duten Loiolako aldaketa hauen berririk ez dute izan. Baina Kontxita ziur da hemendik urte batzuetara baserria botako dutela. “Agian neuk ez dut ezagutuko, baina hori gertatuko dela seguru nago, Loiola inguruan aldaketa handiak egin dira eta egingo baitira”.

Leku paregabean dagoen baserria da, atzealdetik berdegunez inguratua. Baratza eta fruitu arbola batzuk ditu, baina gaur egun bertakoak ez dira baserri lanetan aritzen. Kontxita semearekin bizi da. Baina asteburuetan eta abuztuan bizilagunak gehitu egiten dira. “Baserriaren jabea, gure lehengusu bat da, eta Donostian bizi da. Haiek, baserrira asteburuetan eta udan etorri ohi dira”. ●



Katalangoa baserria. / NOEVA URUGAZ

INFORMAZIO ETA ENTRETENIMENDUA... ...egunero egunkari berezi eta desberdin bat zuretzat

ASTEAZKENERO:



OSTEGUNERO:



OSTIRALERO:



LARUNBATERO:



IGANDERO:



Egunero Bizkaian. Bizkaiko berriak bizkaieraz biltzen dituen gehigarria.

Bizkaia

Ostiralero Nafarroan. Nafarroako albisteak biltzen dituen gehigarria.

Nafarkaria

Egin zaitez harpidedun eta... **Kalitatezko zerbitzuaz gozatu!!**

1. Banaketa zerbitzu eraginkorra

Goizeko 08:00ak aurretik jasoko duzu EGUNKARIA etxean, lantokian, kioskoan...

2. Harpidedunaren txokoa

Antzerki, kontzertu edo zinemarako sarrerak; afariak; egonaldiak; liburuak; diskoak... **DOAN!**

3. Promozioetan abantailak

EGUNKARIAK kaleratzen dituen musika bildumak, liburuak eta bestelako eskaintzak merkeago.

4. Bezeroari arreta

Gurekin harremanetan jartzeko telefono bat duzu eskura: 902 300 223
harpidetza@egunkaria.com

Egunkaria

datue

6 enpresa txiki eta berri sortzen lagundu zuen iaz Iraurgi Lantzeneko Enpresa Zerbitzuak eta Enpresa Proiektu Berrietarako Sailak. Enpresa berri haiek alor desberdinetakoak dira: merkataritzakoak eta teknologia berriekin lotutakoak, besteak beste.

esaldiye

“Euskal herritarren iritzi politikoak eta kontsumitzen diren hedabideek ez dute bat egiten; horrek, luzera begira, espainolismoak nazionalismoari egiten dion balazta efektua eragiten du”

Ramon Zallo
(UPV-EHUko irakaslea)

esaerie

“Sua Gabonetan txapan, Sanjoanetan plazan”

liburutik ttak

“Politiko batzuek pribatuan diote beren lana egiterakoan dituzten zailtasunak prentsa-rengatik dela. Hala, 1992an Felipe Gonzalezek zera zioen: ‘Maiz ikusten dugu ez dela egia esaten edo difamatu egiten dela, hori egiten duenarentzat kosturik gabe’; eta ondoren komunikabideak akusatu zituen. ‘Gustatuko litzaidake epaitu aurretik gaitzetsi egiten den fase hau gaindituko bagenu’, zioen”.

‘Kazetariak’. Felix Santos. Temas de hoy argitaletxea. 1995. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



LEHENTASUNA ETA NAGUSITASUNA DEFENDATUZ

Herria sortzean, erregeak San Sebastian Monastegia berari eskaini bazion ere, urteetan nahikoa borroka sortu zen patrioaren eta herritarren artean.

Esaten zaigunez, 1583ko ekainaren 26an Loiolako Pedro Borja patrioiak baimena eman zuen herriko agintarientzat aulki bat jartzeko parroikiko elizan, epistola aldera, eta bere eserlekua baino zerbait atzerago. Agintariak ez ziren konforme, eta berari haxe esatea erabaki zuten: erregeak emanda, eskubidea zuela herriak toki nagusiago bat izateko, gutxienez patrioiak beraren parean, inolako baimenik eskatu gabe egin zezakeena, gainera. Bide batez herriak eta herritarrek altxa beharko zutela hondamenean zegoen eliza adierazi zioten. Gutxienez 30.000 dukat kostatuko zen, eta inolako laguntzarik eman gabe

gelditzen zen seguruenik Borja jauna. Ez dakigu zer erantzun zuen parroikiko patrioiak, baina berehala hasi zen herria lanean, ez bakarrik agintariak nahi zuten tokian aulkia jartzen, baita elizan obran ere.

Urtebete geroago, beste kontu batek piztu zuen agintarien haserreak. 1584ko ekainaren 10ean, Zurbano kapera eta sakristia artean aulki bat jarri zen bizkarraldeko eta guzti (oraindik denbora asko ez dela koru atzeko gelan jasota zena), eta hori bai jasanezin egin zitzaie. Euren aulkia baino aurrerago zegoen, nagusitasuna eskainiz bezala bertan esertzen zenari, haien ustez behintzat. Azkar agindu zuten aulki hura kentzeko.

Azkenik, 1558ko San Sebastian egunean kaleratutako prozesioan gertatutakoari buruz, neurriak hartzea erabaki zuten agintariak,

garai bateko Azpeitiye ...Satur Larrañagak kontatua

Bustinzuriko errebala

Satur Larrañagak ondo ezagutzen du Bustinzuriko errebala, bertan sortu, lan egin eta bizi izan baita urteetan

Idoia Mendizabal

Herri guztiek dute errebala, herria handitu ahala kanpoaldean sortutako kale berriei izen hori ematen baizitzaien garai batean. Azpeitiak ere badu berea: Bustinzuriko Errebala, hain zuzen ere. Eta “Azpeitia osoak baino gehiago balio zuen kalea” omen zen, Satur Larrañagaren esanetan.

Satur Larrañaga Bustinzuriko errebalean sortu zen, lana ere kale horretan zuen, “*barberiyen*” egiten zuen, erretiroa hartu arte —orain Bankinter dagoen horretan zen eraikinean—; eta bizi ere errebalean bizi izan da beti, orain etxea Arana 1ean badu ere. “Pena” eman zion Udalak kale eta zenbakien aldaketak egin zituenean orain bizi den etxea —Urtzi tabernaren goikoa— Arana 1 izendatzeak, lehen errebaleko luzapena baitzen. Saturrek gogoan du errebalak bizi zueneko garaia: “Kalerik ederrera zen, pasabide dena hemendik zegoela-

ko, eta kalean ere jende mordo ibiltzen zelako. Emakume asko egoten zen alpargata josten etxe atarrietan-eta, norbere etxean bakarrik baino hobeto elkartuta... Errebaletik pasatzeko lotsatan bat baino gehiago izaten zen emakume haiengatik”. Kalean alpargata jostearena, etxe berriak egin zirenean —Zentenarioko etxeak eta aurrekoak— eta ibilgailuen mugimentuarekin amaitu zen. Orain, berriz, “inor ez da pasatzen, eta autoak aparkatuta baino ez dira egoten”; kexu da Satur.

AKTIBITATE HANDIA. Satur *barbero*az gain, beste lanbideetan aritzen zirenak ere baziren: “Pikuaneko taberna, Eguzkitzaneko denda, Arronanekoa, Andresen Artetxe azpiko alkilerria, Juaniton harategia —aurretik Etxahunenekoez almazena izan zuten han—, Zabalanekeen denda, Aitzakinekoa... Orain Zokoa den horretan bodegoi bat zen, eta alboan burdingintzan jarduten zuen tailerra zego-

xapo euskerie

Aitor Arruti
Arantzazu Azpillaga
(itzultzaileak)

EUSKALKIAN

BETI: BAI

ALA EZ (I)

Euskalkiak gehiago eta hobeto erabiltzea proposatu du zenbaitek azkenaldian, edozein alorretan euskara egoki erabiltzeko. Hala ere, proposamen horiek ez ditugu guztiok era berean interpreta-tzen, eta gehiegikeriak ere egiten dira.

Gai hori eta beste batzuk jor-rutatuz, **Xabier Kintana** bizkaitar euskaltzainak artikulu bat idatzi zuen *Jakin* aldizkariko 127. zenbakian. Haren iritzia ezagutzea benetan merezi duenez, handik zenbait ideia bildu ditugu, eta hil honetako Uztarrarian eta hurrengokoan jakinaraziko dizkizuegu:

- Euskal Herrian euskarazko liburu guztien %95 inguru euskara batuan argitaratzen omen dira, irakaskuntza-testuak %100 praktikan. Euskaltegietako ikasle nagusiek batua ikasten dihardute. Irrati-telebista nagusiek hizkuntza batua bultzatzen dute. Errotulazio eta seinalizazioa ere, oro har, hizkuntza batuan idatzita daude. Irakurle erdaldu-nen %100ek batua nahiko erraz ulertzen du. "Inork ezin gezurta ditzakeen egia non-bait".

- Baina euskara batuak hutsuneak ditu, eta "hor ari dira, jo eta ke, euskalkiak berpiztu guran, bizkaiera bereziki, be-rau dialekto bat barik, hizkuntza oso, beregain eta aparta balitz bezala. Jokabide hori berez lauzpabost txotxoloren keria litzateke, eragin praktikorik gabea, baldin eta beren inguruan bozgorailu sistema bikaina eratu ez balute, non eta *Euskaldunon Egunkaria*-n".



Garai bateko Parrokiko ataria. / IMANOL ELIZEN ARTZIBATEGA

● **ELIZAREN KONPONKETA.** Herriak eta herritarren altxa beharko zuten hondamenean zegoen eliza. Gutxienez 30.000 dukat kostatuko zen

nagusitasuna agertu zitzaiolako Loiolako jaun eta parrokiko patroari. Hasieran, Madrilera gestioak egitera norbait bidaltzea onartu zuten, baina batek esan zuenean horri buruzko txostena bidali zuela, ahalik eta azkarren erantzun bat lortzea erabaki zuten.

“ Errebala kalerik ederre-na zen, pasabide dena hemendik zegoelako ”

Satur Larrañaga



en, Uzineneko azpian arotzen tailer txiki bat ere bazen”. Kale horretan bukatzen zen Azpeitia, eta handik aurrera dena soroa zen. “Kale atzean, ibai aldera eta Arrona atzean baratzak zeuden, eta beste dena soroa zen, Urbanonak eta Gaztenekoenak eta.”

Barberia-ko kontuak gogoan ditu. “Txandarik-eta ez zen izaten orduan, azkena nor zen galdetu eta txandaren zain egoten zen. Jendea biltzean, Beneren *Almacen de Vinos*-era joan eta porroia beteta ekartzen genuen”. Orrazkera aldetik ere ez zen oraingorik. “Orrazkera bera egiten nuen beti: makinak harrapatu ahala moztu. Patilak luzeago eta motzago moztzen nituen”. Orduko astelehen arratsaldea ere gogoan ditu Saturrek. “Errebalean, poltsikoan bi pezeta zituenak jai egiten zuen. Egun bateko sagardorako lain bazen hori, 10 *xemeko* kostatzen zen sagardo basoa eta”.



Arria kalea; atzeko etxeak errebelekoak dira

osasune Julian Bereziartua (medikua)



ARRAIN TXIKIRIK IZENDATUENA EDO OSPETSUENA

Txanketea (*aphia minuta*), jale handia eta oso gogorra da. Bost zentimetroko luzera oso gutxitan izaten du; gorputz gardena du. 20 eta 25 gradu arteko tenperaturako uretan bizi da. Horregatik, ez dugu aurkituko Kantauri itsasoan, Andaluziako itsasertzean baidzik. Angulararen antzeko pisua du, gramo erdia inguru. Askatasuna gogoko du, baina, taldeka, itsasertzean ibili ohi da.

Gaur egun desagertuta dagoela esan daiteke, baina jatetxe askotan jendeak eskatzen du, ikaragarri garesti ordaindu behar badu ere. Eta, jendearen gutizia asetzeko, sardinaren, antxoaren, legatzaren eta abarren kume jaio berriak ematen zaizkie. Neuk frogatu izan dut hori bera.

Arrain txiki hauek harrapatzea eta saltzea debekaturik dago 1998az gozotik. Beraz,

txanketea desagertu bada, beste batzuk ere desagertuko dira laster. Gure sistemak hutsune hau badu: errespetu eza...!

Gordinik, antxoaren antzekoa da, baina gehienetan arrautzatan eta irinetan pasatuta jaten da, eta olio asko zurgatzen du; horrela, 100 gramo txankete jaten badugu, 400 kaloria sartzen ditugu barrura; hau da, dozena erdi bat arrautza jango bagenu bezalaxe.

Elikagaia baino gehiago, gutzi gastronomiko bat da, ezkailua bezalaxe. Ez ezazu eskatu txanketea, eta epe luzera denen onerako izango da.

● **KALORIAK.** 100 gramo txankete jatea dozena erdi arrautza jatea bezalakoxea da

euskerie



TXILLARDEGI ETA BERE TEORIA

“Eman dezagun lau lagun daudela, A, B, C eta D; eta horietako hiru elebidunak direla eta bestea elebakarra dela. Joaten zara bikoteak egiten, eta ikus dezakezu zein hizkuntza hitz egin daitekeen bakoitzean. Sei bikote posible dira, eta elementu bakar batek inposatzen du elkarrizketetako hiru hizkuntza batean egitea (%50). Bada, kontuan hartu, euskal gizartean euskararen ezagutza lautik batekoa bada, aukerak ikaragarri murrizten dira. Hori orokortzen badugu, ariketa matematikoen bidez kalkulu errazak egin daitezke. Beraz, argi eta garbi ikusten da elebakarrak inposatzen duela. Eta euskaldun elebakarrik ia ez dagoenez, inposatzen dutenak erdaldunak dira”.

gertuko pasadizue

JOXE LIZASO OMENDUA

● **JOXE MARI IRIONDO:** “Omenaldietan nik ezagutu nuen lehena, 1974ko martxoaren 10ean Azpeitian egin zitzaion. Joxe Lizaso, Joxe Agirre eta Imanol Lazkano omendu zituen Karmelo Etxegarai ikastolak. Helburu bikoitza izan zuen jaialdia: lehena, herriko bertsolariak omentzea zen; eta bigarrena, beharrean zegoen ikastolarentzat txanpon batzuk biltzea. Ikusgarritzko jendetza bildu zen Izarraitz pilotalekuan”.

‘Joxe Lizaso. Nere aldiko kronika’ liburutik hartua. Joxe Mari Iriondo. Sendoa argitaletxea. 2001. urtea.

Joxe Lizaso
Nere aldiko kronika



- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

AZKOITIAN ALTAMIRA AUZOAN ETA AZPEITIAN PERDILLEGIN:

- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak**
 - Merkataritza
 - Arotzerien eta altzarien fabrikazio industriala
 - Mekanika
- **Goi Mailako Heziketa Zikloak**
 - Administrazio eta finantzak
 - Zur eta altzari produkzioa
 - Mekanizazio bidezko produkzioa
 - Informatika sistemen administrazioa
- **Batxilergoak**

● **AURREMATRIKULA**

EPEALDI ARRUNTA

Erdi eta Goi Mailako H. Zikloak
Ekainaren 3tik 12ra (biak barne)

● **MATRIKULAZIOA**

Uztailaren 1etik 5era (biak barne)
EPEALDI BEREZIA

Goi Mailako Heziketa Zikloak
Uztailaren 22tik 24ra (biak barne)

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa 2/g Perdilleji, 3
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa) 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 Fax.: 943 85 28 67 Tel.: 943 15 37 70 Fax.: 943 81 6 6 20
E-mail: azkoitia@urola.hezitek.net E-mail: azpeitia@urola.hezitek.net



Euro S.M. 2000
Euro School Sec 2000



www.urola.hezitek.net



AZPEITIKO IKASTOLA KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

eloki
 Arguiñano, 75 Tel.: 943 85 04 62
 AZKOTIA
 Artero, 21 Tel.: 943 161382
 AZPEITIA



EDUARDO BERASATEGUI

Harategi eta Zerritegia
 Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an
 Urrut. 943 81 14 98



bestaba okela

HARZUBIA, 26 D
 TEL. 81 60 25
 ETXEKOA 15 00 03
 AZPEITIA



Harategi
 Espezializatua

Arana Kalea, 14
 Urrut.: 943 81 10 15



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXEKO URDAIKIA


FORU HIBILBIDEA, 4
 TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO
 HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
 TFNOA.- 943 811671



EUSKAL KARNETA ATERATZEKO AUKERA

Nahi duten azpeitiar guztiek EHNA eskatzeko aukera dute udaletxe azpiko harrera bulegoan; ekainaren 1ean inauguratu zen bulegoa

Itxera Uranga

Ekainaren 1ean, eguerdian, inauguratu zen herrian EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Aitormen Agiria) ateratzeko Azpeitiko bulegoa. Bulegoa udal-tertxeko harreraren dago, eskuinaldeko ate txikitik sartu eta bertan. Inaugurazio ekitaldia jai giroan egin zen, eta Udalbiltzako

talde eragileko ordezkari (Batasuna, AB eta alderdi independente batzuetako zinegotzietatik osatzen dutena) ere izan zen. Dantzariak, txalapartariak eta bertsoak ere izan zen ekitaldian. Eta garrantzitsuenak: azpeitiarrek EHNA eskaera egiteko aukera daukate jadanik.

Azpeitiko Udalean ezohiko osoko bilkurak Bai Euskal Herriari herri mugimenduak egini-

ko eskaera onartu eta hilabete-ira ireki da, hain justu, EHNA tramitatzeko bulegoa. Bai Euskal Herriari herri ekimenak Azpeitiko Udalarri egindako eskaerak, laburbilduta, honakoak izan dira: Azpeitiko Udalak EHNA tramitatzeko; Udalak horretarako baliabideak jartzea; eta, dokumentu publikoa izanik, horren benekotasunaren fedematea, baita udal ondorioeta-

rako ere. Mozioa Batasunak aurkeztu zuen, eta bere zinegotzietatik aldeko botoekin eta EAJko eta EAko zinegotzietatik abstentzioarekin onartu zen.

BESTE MOZIOA. Udalbiltzan, gai honekin lotuta, beste mozio bat aurkeztu zuten EAJko eta EAko zinegotzietatik: Udalbiltzari (EAJko eta EAko udal zinegotzietatik osatzen dutenari), ENAren (Euskal Nortasun Agiria) gaiari buruzko "azterketa sakon bat egiteko" eskatzea proposatzea. Mozio hori EAJko eta EAko zinegotzietatik aldeko botoekin eta Batasuneko abstentzioarekin onartu zen.

Bai Euskal Herriari herri ekimenak Azpeitiko Udala "esker-tu" egin du erabakia hartu ondoren. Baina, udalbatzan gaia aztertzen hasi zirenean unean sortutako eztabaida kritikatu du. "Bilkuran Udalbiltzaren barne funtzionamendu desegokiaren inguruan sorturiko eztabaida salatu nahi dugu. Interes partidisten gaitetik euskaldunon eskubideak gauzatzeko urratsak emateko ardura Udalbiltzarena delako", diote Bai Euskal Herriari-koek.



AMAIA TABERNA

Pintxo bereziak eta giro jatorria



Urritzkina, 943 150472 ♦ Erdi kale, 13

CENTERPOINT ACADEMY

Ingelestegia- English School

- HAURRENTZAKO KLASE BEREZIAK
- IKASTALDE TXIKIAK
- ORDENAGAILUZ ETA BIDEOZ LAGUNDUTAKO IRAKASKUNTZA
- INGELESEZKO LIBURUTEGI ETA BIDEOTEKA
- AZTERKETARAKO PRESTAKETAK. HIZKUNTZ ESKOLA OFIZIALA, CAMBRIDGE, TOEFL

ZATOZTE!!!

Foru Ibilbidea, 7-1 ez.

Tel.: 943 81 65 03

LORE SORTAK
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87
Loiolo-Bide, 25 - AZPEITIA

Oramendi
Bilvi Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Larrialdiak:
943 15 16 40

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Pauso gutxi eta errazak

- **BULEGOA.** EHNA ateratzeko bulegoa udaletxeko harreran dago: eskuinaldeko ate txikian, beheko solairuan. Hain zuzen, 08:00etatik 15:00etara egongo da irekita astegunetan.

- **DOKUMENTAZIOA.** Hauxe da EHNA ateratzeko bulegoan aurkeztu behar dena: lau argazki, Azpeitian erroldatua izatearen ziurtagiria, eta ordainketa agiria. Ordainketaren ziurtagiria ateratzeko, Euskadiko Kutxan edota Kutxan, EHNA-ren kontu korrontean 12 euro sartu beharko dira, eta agiria eskatu.

- **ESKAERA ORRIA.** Dokumentazioa EHNAko bulegoan uztean, eskaera orria bete beharko da, eta eskaeraren ordezkotako agiria jasoko da.

- **NOIZ JASO.** Hilabeteko epean bulegoan bertan jaso ahaliko da EHNA, eskaeraren ordezkotako agiria aurkeztuz. ●



Emakume azpeitiar bat, udaletxean, EHNA ateratzeko tramiteak betetzen, ekainaren 1ean. / UZTARRIA

Daukagun **kultura maite** dugulako,
euskal eskola nazionalaren bidetik
mundu zabalera.

ikasberri
AZPEITIKO IKASTOLA

loiola etorbidea, 26 - 20730 azpeitia - tel 943 15 12 46 - faxa 943 15 17 76 - ikasberri@ikastola.net

Batasunak proposatua

Pil-pilean diren gaiak

● **LOKALEN ERABILERA.** "Azpeitian balizko kultur baliabideen ugaritasuna handia dela esan behar da, baina lokaleen erabilera murrizta. Urteak daramatzate hainbat kultur taldek euren premiak ase ezinik. Orain arte ez da kontuan hartu kultur eragile hauen iritzirik".

● **BALIABIDEEN GESTIOA.** "Kultur baliabideak kudeatzeko garaian herri mugimenduaren partehartzea ezinbesteko baldintza da. Baliabideak gestio-natzeko unean, partehartze aldetik dauden hutsuneak oso nabarmenak dira".

● **KULTUR ETXEA.** "Taldek bilgune bat behar dute, elkarlana azkartuko dien espazio erreferentzial bat. Hori dela eta, kultur etxea epe laburrera begira helburu estrategiko bihurtu da".

● **AZPIEGITURAK ESKAINI.** "Herriarrei, udalak eta erakunde publikoek inbertsioak egin eta azpiegiturak eskaini behar dizkiete, kulturaren protagonismoa ere adostua izan dadin".

● **DEMOKRAZIA FALTA.** "Kultur eta komunikazio baliabide arloan demokrazia falta larria dago".

Batasunak ateratu duen kartela.

LOKALAK SOBERAN AUKERAK FALTAN

azpeitiko kultur baliabideetan herritarren partehartze eskubidearen alde

BERTAKO KULTURA KONTUAN HARTUZ

Orean Irarburua

Batasunak maiatzean aurkeztutako proposamenaren arabera, "derrigorra" jotzen du, "kultura eta kultur dinamikak merkatuaren eta estatuen logika zapaltzaileetatik aske izatea". Alderdiaren ustetan, kultura "fenomeno soziala da, bizia, tresna eraldatzaile eta aurrerakoi moduan ulertzen den zerbit",

Azpeitiko Batasuna kultura herritarren alde agertu da bere kultur proposamenean

hain zuzen ere. Bestalde, "kultur eredu ezkertiar eta askatzailearen" alde lan egingo duela esan zuen.

Batasuna alderdiak kultura herritarren aldeko "konpromiso irmoa" hartu du, "politika herritarri" lehentasuna emanez, alegia, eta bere helburuetako bat "kultura sozializatzea" da. Batasuneko zinegotziek denon ahotan dabilzan hainbat gai ere gogoratu zituzten. ●

ACADEMIA DE FRANCES
FRANTSES AKADEMIA

apunta zaitez!

allons-y 15 00 92

Bustinzuriko Arrabala, 12 - 1

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak, edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

HITZEIN
HITZEIN
HITZEIN

Izaskun Lizarralde

LOGOPEDIA

943 153 296 - 943 167 417
URRUTIA 5 - IZASKUN 20701 AZPEITIA

bitxidenda

DISDIRA

Plaza txiki, 7 - Telf. 943 81 23 67

Egin publizitatea

uztarria

943 150358

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira

81 53 35



Azpeitiko dendariak, zuen ondoan, zuen zerbitzura

CICLOS BENI

Loiolabide Tel. 150629

LARRAÑAGA KIROLAK

Arana, 3 Tel. 811365

ODRIOZOLA HARATEGIA

Arana, 14 Tel. 811015

EGOKI JANARIAK

Barrenetxe, 8 Tel.815490

ZABALA HARATEGIA

Arrabal, 8 Tel.811671

NEREA MERTZERIA

Arrabala Tel.812862

ZOKOA ANDREEN JANTZIA

Arrabala Tel.815056

ARKUPE KIOSKOA

En. Nagusia Tel.815207

AGIRRE OPARIDENDA

Erdi Kale, 1 Tel.811325

FURUNDARENA OINETAKOAK

Erdi Kale, 9 Tel.811143

URIA ALFONBRAK

Erdi Kale, 29 Tel.812337

AMENABAR JANARIAK

Etxe-alai, 3 Tel.150065

SAN SEBASTIAN HARATEGIA

Foru Ibilbidea, 4 Tel.811594

EGAÑA GOZOTEGIA

Goiko Kale, 10 Tel.811885

JAKA JANARIAK

Harzубia, 19 Tel.816549

ANDONI FRUITUDENDA

Harzубia, 29 Tel.812502

AITZAKI KIROLAK

J.A. Agirre, 4 Tel.150738

OTOLA KINKILADENDA

J.A. Agirre, 7 Tel.811366

SANTI LAZKANO KIROLAK

J. Artetxe, 1 Tel.811650

BALENCIAGA

J. Artetxe, 10 Tel.813400

ERROTAUNDI OKINDEGIA

Euskal Herria

MARTZALA OINETAKOAK

Olazko Amaren Plaza

BELOKI HARATEGIA

J. Artetxe, 21 Tel.151392

ARROSPIDE OINETAKOAK

Loiolabide, 1 Tel. 811914

EMAITZ LURRINDENDA

J.A. Artetxe, 11 Tel.813345

ORDULARI BITXIDENDA

J.A. Artetxe, 10 Tel.815244

ARANTXA HAUR JANTZIAK

J.A. Artetxe, 8 Tel.812429

BABESA GAZTE MODA

Urbitearte, 9 Tel.151369

IRIS MERTZERIA

La Salbe, 11 Tel.813298

IRATXO JOSTAILUAK

La Salbe, 24 Tel.150530

ZALDIKO LURRINDENDA

La Salbe, 15 Tel.151275

ICIAR ILEAPAINDEGIA

Loiolabide, 19 Tel.810217

ARADI KIROLAK

Olazko Amaren Pl., 3 Tel.150290

ZURI BELTZ JANTZIAK

Olazko Amaren Pl., 10 Tel.816656

MATXIN ZESTOAK

Pablo VI, 39 Tel.810116

UKABI ORDENAGAILUA

La Salbe, 39 Tel.150101

LUR LORA DENDA

Santiago, 11 Tel.150085

URKE ARGAZKIAK

Urbitearte, 4 Tel.151287

UROLA BIDAI AGENTZIA

Arrabal Tel.150804

M. GRAL . SEGUROS

Pablo VI, 5 Tel.151649

COOP. SUKALDEAK

Arana, 7 Tel.812309

URBISTONDO MARGOAK

La Salbe, 35 Tel.815781

SOINU ELEKTROGAILUAK

Okerra, 11 Zestoa Tel.147938

DUNPI JOSTAILUAK

Erdi kalea, 3 Tel.151890

Foru ibilbidea, 3 Tel.813969

Azpeitiko merkatu txikiye

1. ETXEBIZITZAK

- 1.1. Saldu
- 1.2. Erosi
- 1.3. Errentan eman
- 1.4. Errentan hartu
- 1.5. Etxeak osatu
- 1.6. Bestelakoak

2. LOKALAK

- 2.1. Saldu

- 2.2. Erosi
- 2.3. Errentan eman
- 2.4. Errentan hartu
- 2.5. Bestelakoak

3. GARAJEAK

- 3.1. Saldu
- 3.2. Erosi
- 3.3. Errentan eman
- 3.4. Errentan hartu

4. LANA

- 4.1. Eskaintza
- 4.2. Eskaera
- 4.3. Bestelakoak

5. MOTORRA

- 5.1. Saldu
- 5.2. Erosi
- 5.3. Errentan
- 5.4. Bestelakoak

6. BIDAIAK

- 6.1. Europa
- 6.2. Mundua

7. DENETARIK

- 7.1. Saldu
- 7.2. Erosi
- 7.3. Errentan eman
- 7.4. Errentan hartu
- 7.5. Bestelakoak

deitu

15 03 58

e-maila:

uztarria@topagunea.com

• Partikularren iragarkiak doan dira. Gainerakoek, lerroko euro bat ordaindu beharko dute.

• Uztarriak ez du iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

• Aldaketak adierazi Uztarriari.

1. ETXEBIZITZAK

1.1. SALDU

• **Eliz kalea.** Eraikitzeaz dauden etxebizitzak. Egongela, bi-hiru logela, sukaldea, jangela, bi bainugela eta traste lekua. Telefonoak: 943 - 89 40 84 edo 636 97 43 20.

• **Soreasu.** Hiru logela, bainugela, egongela eta traste lekua. Oso eguzkitsua. 81.337 euro (13.500.000 pezeta). Telefonoak: 943 - 15 12 85 edo 943 - 81 22 99.

2. LOKALAK

2.1. SALDU

• **Plaza Nagusia.** Lehen pisua, arkupean. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

2.3. ERRENTAN EMAN

• **Olazko Amaren Plaza.** Telefonoak: 943 - 15 08 72 edo 666 52 59 45.

• **Iñaki Azpiazu kalea.** Telefonoak: 943 - 81 18 00 edo 943 - 81 02 94.

• **Enparantza Nagusian.** Lehen pisua, arkupean. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

• **Juan XXIII.** 7. zenbakian. Telefonoak: 943 - 81 22 85 edo 943 - 81 28 97.

• **Landeta.** Asepeyoren ondoan. Telefonoak: 943 - 81 17 59 edo 943 - 81 19 58.

3. GARAJEAK

3.1. SALDU

• **Santutxo.** 10. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 07 29.

• **Arana Goikoa.** 5. zenbakian. Telefonoa: 943 - 58 10 42.

4. LANA

4.1. ESKAINTZA

• **Galderagilea.** Hiru lanpostu. Sei hilabetetako lan kontratua. Eskatzen da: lehen mailako ofiziala izatea eta lau urteko esperientzia. www.lanbide.net. 79013/2 eskaintza.

• **Galderagilea.** Azpeitian. Hiru hilabeteko kontratua. Eskatzen da: hirugarren mailako ofiziala izatea eta 25 urtetik behera izatea. www.lanbide.net. 74729/4 eskaintza.

• **Soldatzailea.** Azkoitian. Hiru hilabeteko kontratua. Eskatzen da: hirugarren mailako ofiziala izatea. www.lanbide.net. 74803/4 eskaintza.

• **Metaleko peoia.** Zumaian. Lau hilabeteko kontratua. Eskatzen da: Urola Kostan bizi izatea. 30 urtetik beherakoa izatea, eta urtebeteko esperientzia izatea ere bai. www.lanbide.net. 77686/4 eskaintza.

• **Seguruetarako aholkularia.** Azpeitian. Hiru hilabeteko kontratua. Eskatzen da: urtebeteko esperientzia izatea antzeko lanetan eta 22-55 urte artekoa izatea. www.lanbide.net. 78287/3 eskaintza.

5. MOTORRA

5.1. SALDU

• **Motoa.** Kawasaki GPX 600. Prezioa: 1.200 euro. Telefonoak: 943 76 64 01 edo 605 71 24 73.

• **Autoa.** Ford Orion. SS-AJ. 100.000 kilometro ditu. Egoera onean dago. Telefonoa: 943 - 81 50 48.

• **Eraikuntza.** Lau lanpostu eskaintzen dira eraikuntzarako, Azkoitian eta hiruhilabeteko kontratua. Urola Erdian bizi izatea eskatzen da. Informazioa: www.lanbide.net. 78781/3 eskaintza.

• **Salgai pianoa.** Hormakoa da. Modu onean saltzen da. Telefonoa: 652 76 15 52. Iñaki.

• **Txakurrak.** Artzain txakur ar eta emeak salgai ditugu. Informazio gehiagorako deitu honoko telefonora: 943 - 81 56 20.

• **Autoa.** Discoveri TDI. Lan Rover. VI-V. Telefonoa: 647 65 36 75.

7. DENETARIK

7.1. SALDU

• **Tabernako materiala.** Tabernako materiala salgai, baldintza onean (kafetera, izotz makina...). Telefonoa: 650 76 77 88.

• **Nekazal makina.** Marangon autokargadora 11 hortzekoa eta 18 m3koa, dena hidraulikoa. Eta Kuhn desendiladora. Iluntzetan deitu. Telefonoa: 943 - 81 57 74.

7.2. EROSI

• **Txanponak.** Txanpon zaharrik erosi nituzke. Telefonoa: 639 82 27 90. Pello.

• **Egurra.** Botatako egurra, ohol zaharra eta urritza enborrak. Telefonoak: 943 - 81 34 74 edo 943 - 81 45 70.

7.5. BESTELAKOAK

• **Klase partikularrak.** D.B.H., lehen hezkuntza eta lor guztiak. Telefonoak: 943 - 81 63 97 edo 657 77 74 24.



Errentariak eta beste lagunak

DUEN ORDUTEGIAGATIK
DITUEN ZENTROENGATIK
ESKAITZEN DEN ARRETA BEREZIAGATIK
DUEN KALITATEAGATIK

AZKOITIA

Ibai ondo, 16
Tel.: 943 852034

AZPEITIA

Pablo VI, 20 beheha
Tel.: 943 150816

argazkilaye: Iñaki Uranga

“Beti goian egon zen bakarra, tentsioa”

● **IÑAKI URANGA.** 24 urte ditu eta 1998an hasi zen argazki munduan. Azpeitiko Argazki Elkarte-kidea da, eta *Egunkaria*-rekin kolaboratu izan du azkeneko urteetan. Uztarriarako ere hainbat argazki atera izan ditu.

● **EGUN LUZEA.** Lagun Onak Futbol Taldeak Hirugarren Mailarako igoera zuen jokoan maiztaren 25ean Zarautzen, eta Iñaki Urangak dienez, “tentsioa” egon zen. “Hori izan zen egun luze hartan beti goian egon zen bakarra”.



1



2



3



1. IRISTEN.

Lagun Onak taldekoak Zarautzera, Asti zelaira heltzen.

2. BEROTZEN.

Jokalariak partidurako prestatzen. Tentsioa.

3. ANIMOAK.

Taldeak ez zuen herriko zaleen animorik falta izan.

4. LEHEN GOLA.

Lagun Onak aurreratu zen markagailuan. Gutierrez, berak sarturiko gola ospatzen.

5. BERDINKETA.

Zarautzek banakoa sartu ondoren, Jose Luis Ribera Lagun Onak-eko entrenatzailea, kezkatu.

6. IRRATIAREKIN.

Taldeak 1-2 irabazi arren, igoera ez zuen lortua, Hondarribia-Tolosa bukatzeke baitzen. Kinttela —ezkerrekoa da— partidu hura irratiz entzuten, urduri.

7. IGOERA.

Bukatu zen Hondarribia-Tolosa ere (1-1), eta Lagun Onak gora. Poza nagusi!





8. KOPAREKIN.

Lagun Onak geratu zen Preferenteko txapeldun. Jokalariak, koparekin.

9. ALDAGELAN.

Taldekoak Hirugarren Mai-larako igoera aldagelan ospatzen, Makatzena —erdi-koa— buru zutela.

10. HERRIAN.

Azpeitira heldu eta Sindikatu Zaharrera igo ziren taldekoak —egungo udaletxera—. Presoez oroitu ziren.

11. AFALTZEN.

Egunari amaiera emateko, afaria egin zuten. Beno, afariarekin ez zuten bukatu eguna...



IRAGANEKOAK ORAINGO GOGOAN

Bat-batean izan zen. Urte asko igaroak zeuden azkena ikusi nuenetik, hamar bat urte oso oker ez banago. Eta bat-batean izan zen, bai, lorik hartu ezin nuen gau horietako batean. Gogaiera unea izan ohi da ohean loak hartu ezin eta biraka ibiltzen garenekoa eta horietako batean etorri zitzaidan burura. Francz oroitu nintzen eta hamar urte baldin banengoen bera ikusi gabe, bederatzi oroitzen ez nuela. Eta kontua da, ez nuela arrazoi zehatz bategatik gogoratu. Adiskidetasuna eta denboraren igarotzearen artean egon zitekeen harreman posibleaz pentsatzen ari nintzen, horrela, modu abstraktu batean. Nola igarotzen dugun bizitza jendea ezagutu eta ezagutu, nola horietako zenbat etorri bezain pronto desagertzen diren, nola horietako askorekin inongo harremanik ez den lortzen, nola berauetako askoren berri izan arren, batere axola ez zaizkigun... eta nolaz nola, garai batean adiskide izandakoen arrastoa galtzean, eta denbora igarotzean, utzitako aztarnen bila lorik hartu eziniko gau horretan nola abiatu nintzen sentitu nuen.

Franca bezalako pertsona bat Azpeitian ezagutzea harrigarria egiten zitzaidan duela hamar urte. Italiarra zela badakit, baina ez dakit nondik zetorren, ezta nora zihoan ere. Lagun batzuen etxean hartu zuen ostatu eta denbora gutxian jende asko ezagutu zuen, tartean ni.

Hain erraza zen Francarekin gustura egotea... Beti logureak gogoratzen dut baina umoretsu eta goxo. Egunez ere hegan egitea gogoko zuen gau-txorria zen Franca Panizza.

Mundukoa zen orduan eta halaxe jarraituko due-lakoan nago. Gehienetan ere sosik gabe poltsikoan baina zorionsu, ezer gutxirekin zorionsu.

Bi une gogoratzen ditut bereziki harekin. Bata triste nengoen batean kontsolatu ninduenekoa, eta bestea, eta bereziarena, kitarra soinean hartuta "un vequio y un bambino" abesten zuenekoa. Lau akorde baino ez zekizkien jotzen eta modu traketsean gainera, baina hark jartzen zuen gogoia eta borondatea... Abestia ikastera iritsi nintzen.

Alde batetik bestera jarraituko du Francak makutoarekin bizkarrean eta hori da kontua! Hura Azpeititik aldegin eta gero, bere eskutitz bat jaso genuen eta ez nago oso seguru erantzun genion edo ez baina izandakoa izanda ere, urteak dira hartaz ezer ez dakidala eta modurik ere ez daukadala. Kito, iraun zuena iraun zuen gure adiskidetasunak eta orain, saiatauta ere modurik ez Francaren berri

ESAERA. Denborari denbora darraio

izateko. Gu ez ginen lagun-minak eta ez zuen nigan ezer berezirik ere eragin, baina berezia zen eta, beraz, gogoratzeko modukoa. Elkar agurtu genuenean, kremailera puskatua zeukan nire jertse urdin ilun zahar hura oparitu nion. Zenbat aldiz esan ote zidan zenbat gustatzen zitzaien jertse zarpaildu hura...

Franca, oroitu nezakeen adiskide horietako bat baino ez da eta denok daukagu Francaren bat gure bizitzan. Lastima da, denbora gutxian horrenbeste aldatzen dira bizitzak...

Zauden tokian zaudela ere, musu bat Azpeititik Franca!



As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
				1	2	
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

EKAINAK 4 (asteartea)

● **ZAPO TXOKO.**

Ingumen Astea. Mendi irteera txirrindaz. Zapo Txokotik irteera, 17:30ean.

EKAINAK 5 (asteazkena)

● **ZAPO TXOKO.**

Ingurumen Astea. Ingurumenari buruzko erakusketa. Zapo txokon. 17:30ean.

EKAINAK 6 (osteguna)

● **ZAPO TXOKO.**

Ingurumen Astea. Ispiluan marrazkiak tailerra. Izenematea 3 euro da. Zapo Txoko Gaztegunean. 17:30ean.

● **ELIZ KALEKO JAIAK.**

Korputz jaiak. Jaien hasiera eta Azpiazu anaiekin kalejirari. 18:00etan. Meza. Parrokian. 19:30ean.

EKAINAK 7 (ostirala)

● **ELIZ KALEKO JAIAK.**

Korputz jaiak. Azpiazu anaia. 18:00etan. Gero buruhandiak. Kitarrista Taldearen emanaldia. 20:30ean. Izer eta Alabierrekin dantzaldia. 22:30ean.

EKAINAK 8 (larunbata)

● **ZAPO TXOKO.**

Ingurumen Astea. Bideo forma eta Traperos de Emausen azoka. Zapo Txokon.

● **ELIZ KALEKO JAIAK.**

Korputz jaiak. Emakumezkoen II. Pala Txapelketa. 11:30ean. Frontoi Txikian. Azpiazu anaiekin kalejira, 12:30ean. Itsasi Dantza Taldea, 13:00etan. Pala txapelketako finala, 17:00etan. Errezilgo Zurgin txalapartariak, 18:45etan. Eliz kaleko txikiteoa, 19:00etan. Lagunarteko afaria, Uztarrin, 20:30ean. Eguren eta bere la-

XX. Euskal Antzerki Topaketetako kartel lehiaketa abian da

● **EKITALDIA:** 2002ko Kartel Lehiaketa, Euskal Antzerki Topaketak ● **EPEA:** Ekainak 20 (osteguna) ● **SARIA:** 901 euro (149.914 pezeta)
 ● **AURKEZTEKO TOKIA:** Udaletxean, Kultura Saila ● **ANTOLATZAILEA:** Azpeitiko Udala.

Nerea Uranga / Azpeitiko Udalak XX. Euskal Antzerki Topaketetako antolaketari ekin dio jada. Horrenbestez, kartel lehiaketarako epea irekita dago eta hil honen 20an amaituko da lanak aurkezteko epea.

Kartel lehiaketaren xedea, "Euskal Antzerki Topaketen publizitatearen sustapena egitea da", eta irabazlearentzat 901 euroko saria egongo da. Lehiaketan edonork har dezake parte, eta partehartzaile bakoitzak, gehienez ere, hiru kartel aurkezteko posibilitatea edukiko du. Kartela egiteko moduan ere, teknika eta modu desberdinak erabiltzeko aukera eskaintzen du Azpeitiko Udalak. Baina neurria zehaztu egiten da lehiaketako oinarrietan; hau da, 450 milimetroko zabalera eta 680 milimetroko

altuera izan beharko du. Goiburuan, berriz, Antzerki Topaketari dagokion edizioaren izenburua eraman beharko du. Lanak, sinatu gabe eta aparteko kartazal itxi batean egilearen datuak jasota entregatu beharko dira Azpeitiko udaletxean.

Lehiaketara aurkezten diren lan guztiakin, Udaleko Kultura Sailak erakusketa bat antolatuko du, lanak aurkezteko epea amaitu ondoren. Eta erakusketa amaitzen denean, Udalak hautatutako epaimahiaren erabakia jakin eta saritutako kartelaren berri emango da. Hala ere, kartel lehiaketako irabazleak dagokion saria ezingo du jaso XX. Euskal Antzerki Topaketen amaiera ekitaldia arte; hots, Santo Tomasak arte.

gunekin erromeria, 22:30ean. Txalapartariak, 23:45etan. Zozketako zenbakia ateratzea, 24:00etan.

EKAINAK 9 (igandea)

● **MENDIA.**

Zazpi Gurutze Ibilaldia. Azkoitian. Parte hartuko dute Lagun Onak M. B. koek.

● **MUSIKA.**

Izarraitz Txistulari Taldearen kontzertua. Asteburu Musikalak egitarauaren barne. Sanjuandegin. 13:00etan.

EKAINAK 10 (astelehena)

● **ZAPO TXOKO.**

Landaretza ikastaroa. Ikastaroa sei euro dira. Zapo Txoko Gaztegunean. 17:30ean.

EKAINAK 11 (asteartea)

● **GAZTE ASTEA.**

Futbito Txapelketako kopako finalerdiak. Azpeitian Gazteok Zer?! taldeak antolatuta. 19:00etan. Betharratan.

EKAINAK 12 (asteazkena)

● **AITONENA.**

Jubilatuaren egun guztirako ibi-

laldia Orduñara. Bazkaria Amurrión izango da eta arratsaldea Laudion igaroko da.

● **GAZTE ASTEA.**

Serigrafia eta larrugintza ikastaroak. Azpeitian Gazteok Zer?! taldeak antolatuta. 18:00etan. Udaletxeko arkupean.

EKAINAK 13 (osteguna)

● **GAZTE ASTEA.**

Futbito Txapelketako ligako finalerdiak. Azpeitian Gazteok Zer?! taldeak antolatuta. 19:00etan. Betharratan.

EKAINAK 14 (ostirala)

● **GAZTE ASTEA.**

Hitzaldia. Gaia: gaur egungo baloreak. 19:00etan. Udaletxeko arkupean. Txiste konstatzen Mañukorta eta Zeberio. 22:30ean. Korrale tabernan. Azpeitian Gazteok Zer?! taldeak antolatuta.

EKAINAK 15 (larunbata)

● **GAZTE EGUNA.**

Azpeitian Gazteok Zer?! taldeak antolatuta. Futbito Txapelketako kopako finala. 14:00etan. Eta ligako finala,

15:00etan. Plazan. Herri afaria eta ondoren *globoen gerra*. 21:00etan. Azoka plazan.

EKAINAK 16 (igandea)

● **MENDIA.**

Egun guztirako ibilaldia Telleriarte-Aitzkorri-Otzaurtera, Lagun Onak M. B. k antolatuta. Irteera 08:00etan plazan.

● **URRESTILLAKO JAIAK.**

San Juan jaien egitarauaren barruan Zaharren Eguna. Urrestillako Jaietako Festa Batzordeak antolatuta. Bazkaria eta arratsaldean herri kirolak.

EKAINAK 20 (osteguna)

● **MUSIKA.**

Juan Antxieta Musika Eskolaren kontzertua eta ikasturte amaierako jaialdia. Asteburu Musikalak egitarauaren barne.

EKAINAK 21 (ostirala)

● **PILOTA.**

Urrestillako San Juan jaien egitarauaren barne pilota partiduak. Udaleko Kirol Batzordeak antolatuta. Urrestillako frontoian.



Lakrikum antzerki taldea. / UZTARRIA

EKAINAK 22 (larunbata)

• MENDIA.

Bi egunetarako mendi irteera Piriniotara (Gavarnie eta Pimene). Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Aurrez izena eman beharko da La-

gun Onak M.B.ren lokalean, Eliz kalean.

• KROSA.

Urrestillako San Juan jaietako egitarauaren barruan herri krosa. Udaleko Kirol Batzordeak antolatuta. Urrestillan zehar.

EKAINAK 23 (igandea)

• MUSIKA.

Azpeitiko Udal Musika Bandaren kontzertua. Asteburu Musikalak egitarauaren barne. Urrestillan.

• URRESTILLAKO JAIK.

San Juan jaiak. Urrestillako Jai Batzordeak antolatuta. Herri afaria eta ondoren San Juan zuhaitzaren igoera eta San Juan sua. Gero, musika talde baten kontzertua.

EKAINAK 24 (astelehena)

• URRESTILLAKO JAIK.

San Juan Eguna. Urrestillako Jai Batzordeak antolatuta. Meza nagusia. III. Artzai Txakurren Txapelketa. Eta arratsaldean, zezen txikiak eta poniak gaztetxoentzat. Urrestildarren kalejira musika eta guzti. Eta iluntzean dantzaldia.

EKAINAK 25 (asteartea)

• URRESTILLAKO JAIK.

Umeen eguna eta sagardo eguna. Urrestillako Jai Batzordeak antolatuta. Sagardo eguna eta bakailu dastaketa.

Arratsaldean mus txapelketa. Eta ondoren tabernaz taberna trikitilarietara kalejira. Umeen eguna ospatzeko, berri, puzgarriak eta jolasak izango dira.

EKAINAK 26 (asteazkena)

• URRESTILLAKO JAIK.

San Juan zuhaitzaren jaitea. Urrestillako Jai Batzordeak antolatuta. Ondoren dantzaldia izango da aurtengo San Juan jaietara emateko.

UZTAILAK 1 (astelehena)

• ERAKUSKETA.

Urolako Arte eta Diseinu Ikastegiko ikasleen arte lanen erakusketa. Uztailaren 21a arte irekita izango da. Astelehetik ostiralera artean irekita 18:00etatik 20:00etara. Anxietateko erakusketa aretoa.

Zeuon ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerria (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com

Hezkuntz Eskaintza 2002-2003



ZUMAIKO
INSTITUTUA

BATXILERGOAK

- Teknologia
- Gizarte eta Giza Zientziak
- Natur Zientziak eta Osasungintza

HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILAKOAK

- › Elikagaigintza Teknikariak - 1.400 ordu
- › Ekipo eta Instalazio Elektronikokoak - 2.000 ordu

GOI MAILAKOAK - 2.000 ordu

- › Administrazio eta Finantza
- › Industri Automatismokoak: Erregulazio eta Kontrolerako Sistema Automatikoak

AURREINSKRIPZIOA

HEZIKETA ZIKLOAK (Erdi eta Goi Mailakoak)

ekainaren 3tik 12ra (biak barne)

Baldintza akademikoak betetzen dituztenentzat

MATRIKULA

› ALDI ARRUNTA:

BATXILERGOAK eta HEZIKETA ZIKLOAK*

*(Erdi eta Goi Mailakoak)

uztailaren 1etik 5era (biak barne)

› ALDI BEREZIA:

HEZIKETA ZIKLOAK (Goi Mailakoak)

uztailaren 22tik 26ra (biak barne)



“Yogakin sentsaziyo desberdinek sentiu nizkiñenan”

Karmenek oin dala hiru urte ezautu zun yogaren mundu hau, lehengusu baten bitartez, hain zuzen.

● **Nolatan yogaren munduen?**

Klaseta juten oin dala hiru urte hasi nindunan. Neure burue nahiko gaizki aurkitzen zunan eta beste pertsona batek esanda ezautu niñenan mundu hau. Klasietan hasi ta belaxe, ordu arte ezezagunek zien sentsaziyuek sentitzen hasi nindunan, beste ilusio bat sentitzen niñenan neure barruen.

● **Eta hortik irakasle izeteko gogue?**

Bueno, ez zekiñat. Behin lagun batek komentau zinan zeatik ez nindunan beayeri yoga klase batzuk ematen hasten. Orduen, garaje baten hasi nindunan hiru lagunei erakusten. Eta hola, egun batien, andra batek igerilekuen yogako irakasle bat beher zebela esan zitenan. Hasiera baten bildurtu ein nindunan, nik ez zaukenat ez tituloik eta ez ezer'e. Baño lasai hasteko esan zinabean bertakuek. Eta modu hontan hasi nindunan pixkanaka yogako irakasle lanien.

● **Zenbat denbora damakin yogako irakasle?**

Oin lokal berriyen natxion, zerbezei gañien, eta hor urritik ai naun klasiek ematen.

● **Jende asko ibiltze al da yogan?**

Momentu hauetan larogei lagun ibiliko ditun, nahiz eta izena emanda ehundik gora eon. Ni hasieran harritate geratu nindunan, ez nuelako espero horrenbeste jende etorriko zanik.

● **Zenbat klase ematen ditun astien?**

Danea zazpi talde zauzkenat eta bakoitze hamalau lagunez osaute zeon. Gero egun batzutan baleike danak ez etortzie baño hola osatzen ditun taldiek. Klasiek

astelehenetik ostegunea ematen ditun, eta egun bakoitze hiru klasez osatzen den; goiz, arratsalde eta gauetan. Klasiek ordu t'erdiko iraupena izaten diñebe, nahiz eta geo askotan klasiek luzau eiten dien.

● **Ze eratako jendie juten den yogako klaseta?**

Era guztietako jendie etortzen den; gaztienak hamabost urte zauzken eta zaharrenak, berriz, 63 urte. Gañea, lanbide desberdiñetako pertsonak ditun: ikasliek, psikologuek, langiliek, irakasliek...

● **Ze ariketa eiten dituzue klasetan?**

Danetik. Oso inportantie den neretzat arnasa ondo hartzen jakitie, eta hortako ariketak eiten dixkineu. Klasietan saiatzen naun gorputz osoko zati danak moitzen. Eta hori lortzeko ariketa desberdiñek erakusten dixkinet.

“Hasieran irakasle hasteko bildurtu ein nindunan, ez detelako tituloik eta ezer'e”

“Klasietan saiatzen naun gorputz osoko zatiyek moitzen eta ariketa desberdiñek erakusten dizkiñet”

Nerea Aranburu

TXIKITEKO AMETSA. “Sekule ez diñet izen amets bat. Askotan pentsau diñet ama bizirik balitz, baño ezinezkie denez...; ointxe bezela jarraitzie den ametsik haundiya”

ZATOZ GURE ERAKUSTOKIA IKUSTERA



GAZTAINONDO, GEREZIZKO ETA HARITZEZKO ALTZARIAK



fabrikako prezioetan zure etxera
finantzaketa 36 hilabetera





Santi Lazkano Kirolak




Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50

sare@.informatika

Informatika, zuegandik gero eta hurbilago

€uroari egokitzeko egitasmoa



**Enpresa eta autonomoentza
Telefonoa dohan**



+ + @ = 0 ptas mes

Azpeitia Azkoitia Zarautz
Pablo VI 19 behea Julio Urkoo 10 behea Kala nagusia 1 behea

Telf: 943157 321

posta@sarea-informatika.com

Banatzaile Ofiziala
Euskaltel

**SALMENTA ONDORENGO
ZERBITZUA.**

Prezio ezinobeak ORDENAGAILUETAN

